c) Jabetza titulua eta, halan danean, Jabetza Erregistroko inskripzinoaren ziurtagiria.

d) Zedarriketarako interesgarritzat jo leitekezan datu guztiak.

## Artículo 30.- Gastos

1. Si el expediente de deslinde se hubiera iniciado a instancia de parte, en la Memoria reseñada en el artículo anterior se elaborará un presupuesto de gastos de deslinde, los cuales deberán ser satisfechos por los promotores. En este caso, deberá constar expresamente en el expediente la conformidad de los mismos.

2. No obstante, en supuestos especiales en los que así se acuerde por el Departamento de Agricultura, éste podrá efectuar el deslinde con cargo a sus presupuestos.

## 30. artikulua.- Gastuak

1. Zedarriketea egiteko espedientea alderdiren batek eskatuz hasten bada, aurreko artikuluan aitatu dan memorian zedarriketearen gastuen aurrekontua egin beharko da, eta gastu horreek zedarriketea sustatzen dabenek ordaindu beharko dabez. Holan danean, espedientean sustatzaileak ados dagozala agertuko beharko da beren beregi.

2. Ostera, Nekazaritza Sailak horretara erabagiten dauan aparteko kasuetan, zedarriketea bere aurrekontuen pentzura burutu ahal izango da.

## Artículo 31.- Acuerdo de deslinde

1. Si en la Memoria a la que se hace referencia en el artículo 29 de esta Norma Foral se acreditara la conveniencia de efectuar el deslinde, por el Diputado Foral Titular del Departamento se resolverá la práctica o no del mismo. Esta resolución deberá ser adoptada en el plazo de seis meses, transcurrido el cual sin que haya recaído resolución expresa se entenderá desestimada la solicitud. Dicha resolución será impugnable ante la jurisdicción contencioso-administrativa, previa comunicación al Organo autor del acto, en los casos y forma previstos en las leyes.

## 31. artikulua.- Zedarriketea egiteko erabagia

1. Foru arau honen 29. artikuluan aitatu dan memorian zedarriketea egitea komenigarria dala frogatzen bada, Nekazaritza Saileko foru diputatu titularrak ebatziko dau zedarriketa hori egiteratzen dan ala ez. Ebazpen hori sei hilabete igaro baino lehenago emon beharko da, eta epe hori beren beregiko ebazpenik emon barik igaro ezkero, eskabidea gaitziritzitzat hartuko da. Ebazpen hori aurkaratu egin ahal izango da administrazinoaganako auzibide-jurisdikzinoaren aurrean, egintza burutzen dauan organoari horren barri emon ondoren, legeek aurrikusko dabezan kasuetan eta eran.

2. Dicha resolución será notificada a la Administración o Entidad propietaria del monte o área forestal, así como a los dueños de las fincas colindantes, si fueran conocidos, y a los titulares de derechos reales constituidos sobre los terrenos afectados, si los hubiera.

3. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, el acuerdo de deslinde se anunciará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento o Ayuntamientos en los que radiquen los montes y parcelas colindantes, indicándose los datos necesarios para la identificación de los terrenos, así como la fecha, hora y lugar en el que vaya a practicarse la operación.

4. En cualquier caso, el período de tiempo que debe mediar entre el anuncio o la notificación y la fecha señalada para la práctica del deslinde no podrá ser inferior a tres meses.

### Artículo 32.- Anotación preventiva

1. Una vez acordado realizar el deslinde, por la Dirección General de Montes y Espacios Naturales se comunicará la resolución al Registro de la Propiedad si el monte estuviera inscrito para que se anote al margen de la inscripción de dominio.

2. Finalizado el deslinde y una vez que éste haya adquirido firmeza, el Departamento de Agricultura, de oficio o a instancia de los titulares de bienes o derechos afectados por la anotación a la que se refiere el apartado anterior, interesará la cancelación de dicha anotación registral.

### Artículo 33.- Efectos

Acordado el deslinde de un monte o área forestal de utilidad pública, el Servicio de Montes, de oficio o a instancia de parte, podrá sujetar o condicionar los aprovechamientos forestales de las parcelas colindantes al monte objeto del expediente hasta que sea firme el deslinde que se practique.

### Artículo 34.- Alegaciones

1. Los interesados podrán presentar en el Registro General del Departamento de Agricultura, las alegaciones y documentos que estimen oportunos en prueba y defensa de sus derechos hasta los treinta días anteriores al comienzo de las operaciones. Transcurrido dicho plazo no se admitirá documento ni alegación alguna.

2. Las alegaciones y documentos aportados serán remitidos a los servicios técnicos y jurídicos del Departamento de Agricultura, para que por éstos se califique la validez y eficacia jurídica de los títulos presentados.

2. Aitatu dan ebazpena mendi edo basoaren jabe dan admnistrazino edo entitateari jakinarazoko jako, bai eta finka mugakideen jabeei, ezagunak badira, eta ikutzen diran lurren ganeko ondasun-eskubideen titularrei be, halangorik badago.

3. Aurreko puntuak dinoanaren kalte barik, zedarriketea egiteko erabagia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta mendiak eta euron lursail mugakideak dagozan udaleko edo udaletako iragarki-oholetan agertuko da; iragarki horretan lurrak identifikatzeko behar diran datu guztiak azalduko dira, eta bai zedarriketea egiteratuko dan eguna, ordua eta lekua be.

4. Edozelan be, iragarki edo jakinarazpena egiten dan egunetik zedarriketea egiteratzeko jarten danera arteko denporaldiak ezin izango dau hiru hilabetetik beherakoa izan.

### 32. artikulua.- Aurrearretazko idaztoharra

1. Behin zedarriketea egitea erabagi ezkero, Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak ebazpenaren barri emongo deutso Jabetza Erregistroari, basoa inskribiturik badago, honek jabari-inskripzinoaren ondoan horri buruzko oharra idatzi daian.

2. Zedarriketea amaitutakoan, eta behin horrek irmotasuna hartu ezkero, Nekazaritza Sailak erregistroko idaztohar horren kitapena eskatuko dau, ofizioz edo aurreko puntuan aitatu idaztoharrak ikutzen dauzan ondasun edo eskubideen titularrek halan eskatuta.

### 33. artikulua.- Ondoreak

Herri onurako mendi edo basoren bat zedarritzea erabagi ondoren, Basoen Zerbitzuak, ofizioz edo alderdiren batek halan eskaturik, espedientea egiten jakon mendiaren lursail mugakideen baso-aprobetxamenduak beretzat gorde edo baldintzatu ahal izango dauz, harik eta egiteratzen dan zedarriketea irmoa izan arte.

### 34. artikulua.- Alegazinoak

1. Interesatuek euren eskubideak frogatu eta babesteko egokitzat joten diabezan alegazino eta agiri guztiak aurkeztu ahal izango dabez Nekazaritza Saileko Erregistro Orokorrean, lanak hasi aurreko hogeita hamar eguneko epearen barruan. Epe hori igaro ondoren ez da ezelango agiririk edo alegazinorik onartuko.

2. Ekarten diran alegazinoak eta agiriak Nekazaritza Saileko zerbitzu tekniko eta juridikoei bialduko jakez, aurkezten diran tituluen baliogarritasun eta eraginkortasun juridikoa kalifikatu daien.

3. En los supuestos en los que la contraposición de datos o documentos así lo exigiera, se acordará el trámite de audiencia a los efectos de que por los interesados que las hubieran aportado manifiesten lo que consideren oportuno. En cualquier caso, dicha audiencia deberá celebrarse veinte días antes del comienzo del deslinde.

4. La Dirección General de Montes y Espacios Naturales, a la vista del resultado de la audiencia practicada, en su caso, y de los informes emitidos resolverá lo que estime pertinente.

## Artículo 35.- Práctica del deslinde

1. En la fecha señalada dará comienzo el deslinde, al cual asistirá un técnico con título facultativo adecuado al efecto designado por el Director General. Las Administraciones, Entidades y particulares interesados podrán concurrir al deslinde acompañados de una persona práctica en el terreno.

2. De las operaciones de deslinde se levantará acta en la que deberán constar los siguientes datos:

a) Día, lugar y hora de inicio de la operación.

b) Nombre y apellidos de los asistentes y, en su caso, el de los interesados que hayan sido representados.

c) Descripción de los terrenos, clases de cultivo de sus fincas, y trabajos e instrumentos utilizados para la delimitación.

d) Dirección y longitud de las líneas perimetrales.

e) Situación, cabida aproximada de la finca y nombre o denominación si lo tuviera.

f) Manifestaciones u observaciones que se hayan formulado, sin que en ningún caso quepa la aportación de nuevos documentos por los interesados.

g) Hora de conclusión del deslinde y la firma de todos los asistentes.

3. Si no pudiera finalizarse el deslinde en un solo acto, proseguirán las operaciones en jornadas sucesivas o en otras que se conviniera, sin necesidad de nueva citación. Si no se hubiera acordado al término de cada jornada la fecha en la que deberán proseguir las actuaciones, la Dirección General de Montes y Espacios Naturales citará formalmente a los interesados. En todo caso, por cada jornada se extenderá el correspondiente acta.

4. Concluido el deslinde, se incorporará al expediente el acta o actas levantadas junto con un plano topográfico en el que figure la delimitación.

3. Datuak edo agiriak kontrajarririk dagozan kasuek halan eskatzen badabe, entzunaldirako tramitea egitea erabagiko da, agiriok ekarri dabezan interesatuek eurek egoki deritxena esatea euki daien. Edozelan be, entzunaldi hori zedarritzen hasi baino hogei egun lehenago egin beharko da.

4. Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak egokitzat joten dauana ebatziko dau, entzunaldiaren ondorioak, halan danean, eta emoten diran txostenak kontutan hartuta.

## 35. artikulua.- Zedarriketearen egiterapena

1. Zedarriketea horretarako jarten dan egunean hasiko da, eta haretara fakultate-titulu egokia daukan teknikaria joango da, zuzendari nagusiak izendaturik. Administrazino, entitate eta norbanako interesatuek aditu bat eroan ahal izango dabe zedarriketa egiten dan lekura.

2. Zedarriketa-lanei buruzko aktea egingo da, eta akta horrek ondoko datuak euki beharko dauz:

a) Lana hasten dan eguna, lekua eta ordua.

b) Bertara joaten diran guztien izen-deiturak eta, halan danean, inork ordezkatzen dauzan interesatuenak.

c) Lurren, euron finketako lanketa moten, eta mugarriketarako erabilten diran lan eta tresnen deskripzinoa.

d) Perimetro-lerroen norabide eta luzerea.

e) Finkearen kokaerea, gitxi giraberako edukierea eta, baleuka, beronen izen edo izendurea.

f) Formulatu leitekezan adierazpen edo oharketak, interesatuek beste agiririk ezelan be ezin aurkeztu izango dabela.

g) Zedarriketearen amaiera ordua eta joan diran guztien sinadurea.

3. Zedarriketea egintza bakarrean ezin bada amaitu, lanak hurrengo egunetan egingo dira, edo ituntzen diran beste batzuetan, beste zitazinorik egin behar barik. Egun bakotxaren amaieran jarduketak noiz jarraitu itundu ezean, Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak zitazino formala bialduko deutse interesatuei. Beti be, jarduketa-egun bakotxeko beroni jagokon dan aktea egin beharko da.

4. Behin zedarriketea amaitu ezkero, egiten diran akta edo aktak espedienteari batuko jakoz, zedarriketea azaltzen dan plano topografikoagaz batera.

## Artículo 36.- Resolución

1. Dentro del plazo de los treinta días siguientes a la conclusión del deslinde, la Diputación Foral, mediante Decreto Foral, resolverá el expediente y las reclamaciones presentadas, a la vista de todo lo actuado. Dicha resolución será notificada a los interesados y publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

2. El Decreto Foral a que se hace referencia en el apartado anterior deberá contener la descripción del monte o área forestal deslindada, denominación, linderos, cabida aproximada, datos registrales si constaren, la referencia que se le haya asignado en el Catálogo, copia del plano topográfico y, en general, cuantas otras circunstancias se consideren de interés en orden a reflejar con mayor claridad la operación realizada.

## 36. artikulua.- Ebazpena

1. Zedarriketea amaitu eta osteko hogeita hamar eguneko epean, Foru Aldundiak espedientea eta aurkeztu leitekezan erreklamazinoak ebatziko ditu foru dekretu bidez, egin dan guztia kontutan hartuta. Interesatuei ebazpen horren barri emongo jake, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Aurreko puntuan aitatu dan foru dekretuak zedarritzen dan mendi edo basoaren deskripzinoa, izendurea, zedarriak, gitxi gorabeherako edukierea, erregistroko datuak, halangorik balego, harek katalogoan daukan erreferentzia, plano topografikoaren aldakia eta, orohar, burutzen dan eragiketea argiago isladatzeko interesgarritzat joten diran bestelako inguruabar guztiak jaso beharko dauz.

## Artículo 37.- Prejudicialidad

Iniciado el procedimiento administrativo de deslinde de los montes catalogados de Utilidad Pública, no podrá instarse procedimiento judicial con igual pretensión, ni se admitirán interdictos sobre el estado posesorio de los montes o áreas forestales mientras no se lleve a cabo dicha operación conforme a lo establecido en la vigente Legislación de Montes.

## 37. artikulua.- Epaitegietara jo aurrekoak

Behin herri onurako legez katalogaturik dagozan mendiak zedarritzeko administrazino-prozedurea hasi ezkero, ezin izango da asmo bereko epai-prozedurarik hertsatu, ezta mendi edo basoen jabetza-egoerearen ganeko auzilarririk onetsi be, eragiketa hori indarrean dagoan Baso-Legeriagaz bat etorriz burutzen ez bada.

## Artículo 38.- Recursos

La resolución del deslinde pondrá fin a la vía administrativa, siendo impugnable ante la jurisdicción contencioso-administrativa si se plantearan cuestiones de tramitación o de carácter administrativo; sin perjuicio de que cuantos estimen lesionados sus derechos relativos al dominio o a la posesión del monte o cualquiera otra de naturaleza civil pueden hacerlos valer ante la jurisdicción civil.

## 38. artikulua.- Errekurtsoak

Zedarriketearen ebazpenak administrazino-bidea itxiko dau, baina administrazinoaganako auzibide-jurisdikzinoaren aurrean aurkaratu ahal izango da, tramitazinozko edo administrazinozko gaiak planteatzen badauz; hori guztia, mendiaren jabari edo jabetzaren ganeko eskubideak edo ganerako eskubide zibilei kalte egin jakela uste daben guztiek jurisdikzino zibilaren aurrean baliatuarazo ahal izatearen kalte barik.

SECCIÓN 2ª
**AMOJONAMIENTO**

2. ATALA
**MUGARRIKETEA**

## Artículo 39.- Tramitación

1. Dictado el Decreto aprobatoria del deslinde, se procederá al amojonamiento con la intervención de los interesados, en base a los datos obtenidos de conformidad con lo dispuesto en la Sección 1ª del Capítulo III de la presente Norma Foral.

2. A tal efecto, se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» con veinte días de antelación la operación de amojonamiento, indicando el plazo para su ejecución, que no podrá ser superior a seis meses, salvo que especiales circunstancias del monte, relativas a su orografía o dimensiones y condiciones climáticas aconsejaran establecer un plazo mayor, y haciéndose constar que las reclamaciones solo podrán versar sobre la práctica del mismo y no del deslinde.

## 39. artikulua.- Tramitazinoa

1. Zedarriketea onesten dauan dekretua emon ondoren, mugarriketea egingo da, eta horretarako interesatuak bertaratuko dira. Mugarriketa hori honako foru arau honen III. kapituluaren 1go. atalak dinoanaren arabera lortzen diran datuak oinarritzat hartuta burutuko da.

2. Horretarako, mugarriketa-eragiketea hogei egun aurretik argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta ha burutzeko epea be adierazoko da; epe hori ez da sei hilabetetik gorakoa izango, orografia, izari, eta eguratsari jagokozan mendiaren inguruabar bereziak dirala eta epe luzeagoa ezarten danean ezik. Horretarako erreklamazinoak zedarriketeari buruzkoak barik mugarriketearen ganekoak baino ezin izango dirala izan jaso beharko da.

3. Igualmente, la operación de amojonamiento será notificada con la misma antelación a la Entidad o Administración titular del monte y a los dueños, si fueran conocidos, de los predios colindantes

4. En plano similar al del deslinde se representará la situación, clase y características de los mojones colocados.

5. Se colocarán mojones en todos los vértices y puntos de referencia significativos del monte o área forestal que permitan una mejor identificación de sus linderos.

6. En los lugares en los que no sea posible la colocación de mojones, éstos serán sustituidos por cualquier otra marca o señal que permita, dadas las características de la zona, cumplir una función de marcaje o señalamiento similar a la de aquellos.

7. Las vicisitudes que puedan surgir durante la práctica del amojonamiento serán resueltas por los técnicos de la Dirección General de Montes y Espacios Naturales a quienes se haya encomendado su ejecución.

### Artículo 40.- Remisión al Registro de la Propiedad

Del amojonamiento se levantará el correspondiente acta que será firmada por los técnicos y demás interesados asistentes al mismo, y de la cual se remitirá una copia al Registro de la Propiedad al efecto de que se practiquen las anotaciones oportunas.

### Artículo 41.- Revisión

1. Las Administraciones o Entidades titulares de montes o áreas forestales, catalogados o no, están obligadas a revisar y, en su caso, reparar, el amojonamiento efectuado con una periodicidad no superior a cinco años.

2. La revisión deberá realizarse con el conocimiento de los titulares de los predios colindantes, levantándose el correspondiente acta, una copia de la cual se remitirá a la Dirección General de Montes y Espacios Naturales.

SECCIÓN 3ª
**GRAVAMENES Y OCUPACIONES DE LOS MONTES DE UTILIDAD PUBLICA**

### Artículo 42.- Gravámenes

Se considerarán gravámenes a los efectos de lo dispuesto en el artículo 15.1.d. de la presente Norma Foral, las servidumbres y demás derechos reales que recaigan sobre los montes de utilidad pública.

3. Era berean, mugarriak jarteko eragiketea aldez aurreko epe berean jakinarazoko jake bai mendiaren entitate edo administrazino titularrari, bai landalur mugakideen jabeei, baldin eta ezagunak badira.

4. Zedarriketarako planoaren antzeko beste batean jarten diran mugarrien kokaera, mota eta ezaugarriak adierazoko dira.

5. Mendi edo basoko erreferentzigunerik garrantzizkoenetan mugarriak jarriko dira, zedarriak hobeto identifikatu ahal izateko.

6. Mugarriak ezin jarri daitekezan tokietan, horreen antzeko funtzinoa bete daikean beste edozein markaketa-seinalea ipini beharko da, zonaldearen ezaugarriak kontutan hartuta.

7. Mugarriketa egitean sortu daitekezan gorabehera eta arazoak eragiketa horren ardurea dauken Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiko teknikariek konponduko dabez.

### 40. artikulua.- Jabetza Erregistrora bialtzea

Mugarriketeari jagokon aktea egingo da eta lan horretara joan diran teknikari guztiek eta bestelako interesatuek sinatuko dabe; haren aldaki bat Jabetza Erregistrora bialduko da, idaztohar egokiak egin daitezan.

### 41. artikulua.- Berrikuspena

1. Mendi edo basoen, katalogatuak egon zein ez egon, titularrak diran administrazino edo entitateek egiten dan mugarriketea berrikusi egin behar dabe eta, halan danean, konpondu, bost urtetik beherako aldikotasunaren arabera.

2. Berrikuspena landalur mugakideen titularrak jakinaren gabean dagozala egingo da, eta hari jagokon aktea be egin beharko da; aktearen aldaki bat Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiari bialduko jako.

3. ATALA
**HERRI ONURAKO MENDIEN KARGAK ETA ATZEMATEAK**

### 42. artikulua.- Kargak

Honako foru arau honen 15.1.d. artikuluak dinoanak ondoreak euki daizan, kargatzat joko dira herri onurako mendien ganeko zortasunak eta ganerako ondasun-eskubideak.

## Artículo 43.- Hipotecas

1. Excepcionalmente, podrá constituirse garantía hipotecaria sobre las rentas o aprovechamientos de los montes de utilidad pública por una duración máxima de veinte años a contar desde la total disposición del crédito garantizado.

2. El aprovechamiento que haya de servir de garantía en ningún caso podrá exceder del fijado por el Departamento de Agricultura para el monte gravado en los Planes de Ordenación, Planes Técnicos o Planes Anuales de Aprovechamiento y Mejora.

## Artículo 44.- Determinación

La Diputación Foral de oficio o a instancia de parte, a la vista del informe de los servicios jurídicos, determinará el contenido y extensión de las servidumbres y demás derechos reales actualmente existentes, procediéndose a inscribir en el Catálogo previa conformidad de la Entidad titular del monte.

## Artículo 45.- Legitimación

1. Cuando de los datos y antecedentes de que se disponga no resultare debidamente justificada la existencia de la servidumbre o derecho real de que se trate, el Departamento de Agricultura, por propia iniciativa o a instancia de la Entidad titular, incoará el oportuno expediente al efecto de resolver sobre la justificación del gravamen.

2. En la tramitación del expediente al que se hace referencia en el apartado anterior, se abrirá un período de veinte días a contar desde la publicación del anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», durante el cual los interesados podrán formular cuantas alegaciones estimen pertinentes en defensa de sus derechos.

3. La Administración o Entidad propietaria del monte y los afectados cuyo domicilio fuera conocido serán notificados personalmente.

4. La resolución adoptada por la Diputación Foral, previa propuesta de la Dirección General de Montes y Espacios Naturales, será susceptible de recurso ante los tribunales ordinarios una vez sea publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia» previa reclamación administrativa en los términos establecidos en los artículos 120 y siguientes de la Ley 30/92 de 26 de noviembre.

## Artículo 46.- Incompatibilidad de gravámenes

1. La Diputación Foral está facultada para declarar la incompatibilidad de un gravamen establecido sobre un monte de utilidad pública o declarado protector, aunque esté debidamente legalizado, previa incoación del oportuno expediente, cuando se estime que tales cargas son incompatibles con las características del monte o con el fin al que estuviera afecto.

## 43. artikulua.- Hipotekak

1. Salbuespen gisa, herri onurako errenta edo aprobetxamenduen ganeko hipoteka-bermea ipini ahal izango da, eta honen gehienezko iraupena bermatzen dan kreditu osoa erabilteko moduan jarten danetik zenbatu beharreko hogei urtekoa izango da.

2. Berme legez erabilten dan aprobetxamenduak inoiz be ezin gainditu izango dau Nekazaritza Sailak kargatutako mendiarentzat antolamendu-planetan, plan teknikoetan edo aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko planetan ezarritakoa.

## 44. artikulua.- Zehaztapena

Foru Aldundiak, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, zerbitzu juridikoen txostena ikusi ondoren, orain dagozan zortasun eta ganerako ondasun-eskubideen edukina eta hedadurea zein dan erabagiko dau, eta katalogoan inskribituko dau, mendiaren titulartasuna daukan entitatea ados egon ezkero.

## 45. artikulua.- Bidezkoketea

1. Eskuarteko datu eta aurrerakinek dana dalako zortasun edo ondasun-eskubidea egotea behar dan legez bidezkotzen ez badabe, Nekazaritza Sailak, ofizioz edo entitate titularrak eskatuta, espediente egokia hasiko dau, kargearen bidezkoketeaz ebazpena emoteko.

2. Aurreko puntuan aitatu dogun espedientea tramitatzeko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik zenbatu beharreko hogei eguneko epea zabalduko da, interesatuek euren eskubideak defenditzeko egokitzat joten dabezan alegazino guztiak egin daiezan.

3. Mendiaren jabe dan administrazino edo entitateari eta espedienteak ikutzen dituanei, helbide ezaguna badauke, jakinarazpen pertsonala bialduko jake.

4. Foru Aldundiak, Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak proposatu ondoren, emoten dauan ebazpenari errekurtsoak ipini ahal izango jakoz epaitegi arruntetan, behin Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ezkero, zemendiaren 26ko 30/92 Legearen 120. artikuluan eta hurrengoetan ezarrita dagoanez administrazino-erreklamazinoa egin ondoren.

## 46. artikulua.- Kargen bateraezintasuna

1. Foru aldundiak herri onurako mendi baten ganean edo babesle adierazo dan mendi baten ganean ezarten dan kargea bateraezina dala adierazoteko ahalmena dauka, mendia behar dan modura legezkoturik egon arren, espediente egokia hasi ondoren, zama hori eta mendiaren ezaugarriak edo mendia loturik dagoan helburuak bateraezinak dirala uste bada.

2. La declaración de incompatibilidad implicará la suspensión temporal o la extinción del gravamen, así como el abono de la correspondiente indemnización cuya cuantía, de no existir acuerdo entre las partes, se determinará de conformidad con lo dispuesto por las normas de expropiación forzosa.

2. Bateraezintasunaren adierazpenak beragaz ekarriko dau kargearen aldi baterako etendurea edo beronen iraungipena, bai eta kalteordain egokia ordaintzea be; kalteordainen zenbatekoa nahitaezko besterenganaketeari buruzko arauek dinoenagaz bat etorrita zehaztuko da, alderdien arteko adostasunik egon ezean.

3. Por la Dirección General de Montes y Espacios Naturales se redactará una Memoria en la que se describirá la servidumbre o gravamen de que se trate, el titular o titulares de la misma y las causas que justifiquen la declaración de incompatibilidad.

3. Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak memoria bat idatziko dau, eta memoria honetan kasuan kasuko zortasun edo kargea, beronen titular edo titularrak eta bateraezintasunaren adierazpena bidezkotzen daben arrazoiak deskribituko dira.

4. La persona o personas que figuren como titulares del gravamen serán notificadas de la existencia del expediente y del derecho a alegar cuanto a su derecho convenga en el plazo de veinte días a partir de la notificación.

4. Kargearen titular diran pertsona edo pertsonei espedientea dagoala jakinarazoko jake, bai eta jakinarazpena heltzen danetik zenbatu beharreko hogei eguneko epean euren eskubideei komeni jakezan alegazino guztiak egiteko eskubidea daukela be.

5. A la vista de la Memoria y de las alegaciones formuladas, por la Diputación Foral, a propuesta del Diputado Foral Titular del Departamento de Agricultura, resolverá sobre la incompatibilidad y el derecho de indemnización, con los efectos establecidos en el párrafo 4 del artículo anterior.

5. Memoria eta egiten diran alegazinoak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu ondoren, Foru Aldundiak bateraezintasunari eta kalteordainak jasoteko eskubideari buruzko ebazpena emongo dau, aurreko artikuluaren 4. lerroaldean ezarri diran ondoreakaz.

6. Firme la declaración de incompatibilidad, se considerará extinguido o suspendido el gravamen, sin perjuicio de que por los interesados se inicie, si lo consideran oportuno, el ejercicio de las acciones legales que estimen pertinentes.

6. Behin bateraezintasunaren adierazpena irmoa izan ezkero, kargea iraungi edo etentzat joko da, interesatuek, egoki baderitxe, bidezkotzat joten dabezan legezko ekintzei ekitearen kalte barik.

### Artículo 47.- Ocupaciones

1. Por razones de interés público y en los casos de concesiones administrativas, podrán autorizarse por el Departamento de Agricultura, previa consulta a la Entidad titular del monte, cuantas servidumbres y ocupaciones temporales de los montes o áreas forestales de utilidad pública fueren imprescindibles para el ejercicio de las mismas.

2. En función de intereses particulares y con carácter excepcional, el Departamento de Agricultura podrá autorizar la constitución de servidumbres y ocupaciones temporales en los montes de utilidad pública, siempre que se acredite su compatibilidad con la utilidad pública del monte y el consentimiento de su titular.

### 47. artikulua.- Atzemateak

1. Administrazinoak emakidak emoten dituanean, herri interesagaitik Nekazaritza Sailak, mendiaren jabea izan daiten erakundari entzun ostean, emakidok erabilteko ezinbestekoak diran herri onurako mendi edo basoen aldi baterako zortasun eta atzemate guztiak baimendu ahal izango dauz.

2. Norbanakoen interesak dagozanean, eta aparteko kasuetan, Nekazaritza Sailak herri onurako mendietan aldi baterako zortasun eta atzemateak egiteko baimena emon ahal izango dau, mendiaren herri onureagaz bateragarria dala eta titularra ados dagoala frogatzen badau.

### Artículo 48.- Autorización

La autorización de la ocupación se concederá por el Diputado Foral de Agricultura, a propuesta de la Dirección General de Montes y Espacios Naturales, previo expediente en el que se acredite por el promotor la compatibilidad de la ocupación o uso con la utilidad pública a la que está afecto el monte, de conformidad con las cláusulas técnico-jurídicas aprobadas por el Departamento de Agricultura y la Entidad titular del monte.

### 48. artikulua.- Baimena

Atzematearen baimena Nekazaritza Saileko foru diputatuak emongo dau, Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak proposaturik, sustatzaileak atzemate edo erabilerea eta mendia loturik dagoan herri erabilereagaz bateragarria dala frogatzen dauan espedientea egin ondoren, Nekazaritza Sailak eta mendiaren titulartasuna daukan entitateak onetsi dabezan klausula tekniko-juridikoakaz bat etorrita.

### Artículo 49.- Indemnización

### 49. artikulua.- Kalteordaina

1. La ocupación temporal de un monte o área forestal de utilidad pública, o la constitución sobre el mismo de servidumbres de cualquier clase o naturaleza, sea por razón de interés público sea por motivos particulares, dará lugar al abono al titular de un canon actualizable o indemnización acorde con los perjuicios de cualquier clase que se ocasionen al monte, o con los beneficios que la servidumbre u ocupación proporcione al promotor.

2. La cuantía del canon o indemnización se determinará de mutuo acuerdo entre la Entidad titular del monte y el promotor o beneficiario de la ocupación temporal o servidumbre, teniendo en cuenta el canon básico fijado en las cláusulas a las que se hace referencia en el artículo anterior.

3. En el supuesto de que ambas partes no llegaren a ningún acuerdo, el importe será fijado por el Departamento de Agricultura en la misma resolución en la que se apruebe la autorización.

#### Artículo 50.- Condicionalidad de la autorización

Cuando la ocupación temporal o servidumbre se solicitare para ejercer la actividad derivada de obras o servicios públicos o concesiones administrativas, la autorización se entenderá siempre condicionada a la adjudicación de la obra, servicio o concesión de que se trate.

# TÍTULO III
# ORDENACION Y APROVECHAMIENTO DE LOS MONTES Y AREAS FORESTALES

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES Y DE ORDENACION

#### Artículo 51.- Ordenación técnica de los montes

1. El Departamento de Agricultura establecerá las condiciones generales de ordenación, conservación y mejora de los montes catalogados o de utilidad pública y de los montes protectores, a través de la elaboración de Planes de Ordenación, Planes Técnicos, Planes Anuales de Aprovechamiento y Mejora, así como de cuantos otros planes y proyectos auxiliares reglamentariamente se determine. Tales planes y proyectos podrán establecer el régimen de uno sólo o de varios montes o áreas forestales.

1. Herri onurako mendi edo baso bat aldi baterako atzemateak, edo holako batean edozelako zortasuna ipinteak, bai herri interesakaitik, bai arrazoi partikularrakaitik, titularrari mendiari egiten jakozan edozelako kalteen edo zortasun edo atzemateak sustatzaileari emoten deutsozan irabazien lagineko kanon eguneragarria edo kalteordaina ordaindu beharra eragingo dau.

2. Kanon edo kalteordainaren zenbatekoa mendiaren titulartasuna daukan entitateak eta aldi baterako atzemate edo zortasunaren sustatzaile edo onuradunak alkarren adostasunez erabagiko dabe, eta horretarako kontutan eukiko dabe aurreko artikuluan aitatu diran klausuletan ezarri dan oinarrizko kanona.

3. Alderdiek akordiorik lortzen ez badabe, zenbatekoa Nekazaritza Sailak zehaztuko dau, baimena onesten dauan ebazpen berean.

#### 50. artikulua.- Baimena emoteko baldintzak

Aldi baterako atzematea edo zortasuna herri lan edo zerbitzuak edo administrazino-emakidetatik datozan jarduerak egiteko eskatzen bada, baimena dana dalako lan, zerbitzu edo emakidea adjukikatzearen baldintzapean emongo dala ulertuko da beti.

# III. TITULUA
# MENDI ETA BASOEN ANTOLAMENDU ETA APROBETXAMENDUA

## Igo. KAPITULUA
## ANTOLAMENDUAREN GANEKO XEDAPEN OROKORRAK

#### 51. artikulua.- Mendien antolamendu teknikoa

1. Nekazaritza Sailak herri onurako edo katalagotutako mendiak eta mendi babesleak antolatu, artatu eta hobetzeko baldintza orokorrak ezarriko dauz, horretarako antolamendu-planak, plan teknikoak, aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko planak eta beste plan eta egitasmo osogarri guztiak eginez. Plan eta egitasmo horreek mendi edo baso bakarraren edo zenbaiten erregimena ezarri ahal izango dabe.

2. Son Planes de Ordenación aquellos en los que se determina el régimen de gestión integral del monte, de duración indefinida, sin perjuicio de su revisión cuando las circunstancias o condiciones que motivaron su elaboración hubieran variado.

3. Son Planes Técnicos aquellos en los que se establece el régimen de gestión y explotación parcial del monte, sin atender necesariamente a todas y cada una de las potencialidades de que sea susceptible, y durante un periodo previamente determinado.

4. En los Planes Anuales de Aprovechamiento y Mejora se concretará la forma y condiciones de los aprovechamientos e inversiones de los montes durante el año al que se refieran, de conformidad con lo dispuesto en los Planes de Ordenación o en los Planes Técnicos.

5. Excepcionalmente, podrán aprobarse Planes Anuales de Aprovechamiento y Mejora sin la previa aprobación de los Planes de Ordenación o Planes Técnicos, debiendo tenerse en cuenta, en todo caso, que no podrán autorizarse actuaciones que pudieran comprometer la futura ordenación del monte.

6. La aprobación de los Planes a los que se hace referencia en la presente Norma Foral, implicará la declaración de utilidad pública de las infraestructuras, obras e inversiones y la necesidad de ocupar los terrenos o parcelas correspondientes, a los fines de expropiación o imposición de servidumbres.

### Artículo 52.- Contenido

La Diputación Foral señalará la estructura y contenido de los planes, así como los documentos en los que deberán recogerse tales determinaciones. En cualquier caso, deberá constar un informe sobre la incidencia ambiental de las actuaciones reguladas.

### Artículo 53.- Iniciativa

1. Los Planes de Ordenación, los Planes Técnicos, y los Planes Anuales de Aprovechamiento y Mejora, se aprobarán por el Departamento de Agricultura, de oficio o a propuesta de la Entidad titular del monte o de los propietarios interesados.

### Artículo 54.- Tramitación

1. En la elaboración de los planes a los que se hace referencia en el presente Título se abrirá un periodo de sesenta días para que por las Asociaciones y particulares interesados se presenten cuantas sugerencias o alternativas estimen pertinentes. En todo caso, una vez finalizado el período señalado con anterioridad, se abrirá un plazo de veinte días para que por la Entidad titular del monte se alegue cuanto estime oportuno al respecto.

2. Antolamendu-planak mendiaren kudeaketa integralaren erregimena zehazten dabenak dira; iraupena mugabakoa izaten da, planak egitea eragiten daben inguruabar edo baldintzak aldatzen diranean berrikusi ahal izatearen kalte barik.

3. Plan teknikoak mendiaren kudeaketa eta ustiapen partzialaren erregimena ezarten dabenak dira, mendiaren erabilera guztiei banan-banan jaramonik egin barik; plan honeen epea aldez aurretik zehazten da.

4. Aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko planetan mendien aprobetxamendu eta inbertsinoak plan horreetan adierazoten dan urtean zelakoak izango diran eta zelako baldintzak eukiko dabezan zehaztuko da, antolamendu-planetan edo plan teknikoetan ezarri danagaz bat etorriz.

5. Salbuespen gisa, inoiz aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko planak aurretik antolamendu-planak edo plan teknikoak onetsi barik onetsi ahal izango dira; dana dala, holakoetan beti euki beharko da kontutan ezin baimendu izango dala mendiaren etorkizuneko antolamendua arriskuan ipini daikean jarduerarik.

6. Honako foru arau honetan aitatu diran planak onesteak ondokoak ekarriko ditu: azpiegitura, lan eta inbertsinoak herri erabilerakoak dirala adierazotea; behar diran lur edo lursailak hartu beharra, besterenganaketak egiteko edo zortasunak ipinteko.

### 52. artikulua.- Edukina

Foru Aldundiak planen egiturea eta edukina zeintzuk diran esango dau, bai eta zehaztapen horrek zein agiritan jaso behar diran be. Edozelan be, araupetu diran jarduketen ingurugiroaganako eraginari buruzko txostena be egon beharko da.

### 53. artikulua.- Ekimena

1. Antolamendu-planak, plan teknikoak eta aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko planak Nekazaritza Sailak onetsiko ditu, ofizioz edo mendiaren titulartasuna daukan entitateak edo jabe interesatuek eskaturik.

### 54. artikulua.- Tramitazinoa

1. Honako titulu honetan aitatu diran planak egiteko, hirurogei eguneko epealdia zabalduko da, halan alkarte eta norbanako interesatuek egoki deritxen iradokizun edo alternatibak aurkeztu daiezan. Edozelan be, aurrean aitatutako epea amaitu ostean, beste hogei eguneko epea zabalduko da, mendiaren Erakunde titularrak gaiari buruz gura dagian guztia gehitu dagian.

2. El plazo señalado en el apartado anterior se computará a partir del día siguiente a la publicación del anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

3. La Dirección General de Montes y Espacios Naturales, a la vista de las alegaciones formuladas y de los estudios y proyectos técnicos realizados, acordará lo procedente con las modificaciones que, en su caso, fueran pertinentes.

4. La aprobación definitiva del Plan de Ordenación corresponderá a la Diputación Foral, previa remisión del expediente administrativo, en el plazo de treinta días a contar desde su recepción. En los demás supuestos la aprobación corresponderá al Diputado Foral de Agricultura.

5. Transcurrido dicho plazo sin que por el Organo competente se hubiera dictado resolución alguna, se considerará desestimada la propuesta.

6. El Organo competente para otorgar la aprobación definitiva remitirá dicho acuerdo al «Boletín Oficial de Bizkaia» para su publicación.

7. Los planes a los que se hace referencia en los apartados anteriores serán inmediatamente ejecutivos una vez publicada su aprobación definitiva.

## Artículo 55.- Planes de iniciativa privada

El Departamento de Agricultura tramitará y, en su caso, aprobará los planes efectuados por los dueños de los montes y áreas forestales, siempre que a juicio de ésta dichos instrumentos cumplan los objetivos de conservación y restauración de las masas forestales por el procedimiento establecido en el artículo anterior.

## Artículo 56.- Ordenación de los montes particulares

1. El Departamento de Agricultura cuando un monte particular no protector ostente importancia forestal, económica o social acreditada en expediente administrativo previamente incoado al efecto, podrá exigir a su titular la redacción de un Plan Técnico o de Ordenación, según proceda, autorizado por técnico competente, dentro del plazo que en relación a las condiciones del monte la citada Administración haya concedido.

2. Si el propietario del monte no hubiera atendido al requerimiento al que se hace referencia en el apartado anterior dentro del plazo conferido que no podrá ser inferior a seis meses o, en su caso, de la prórroga concedida, el Departamento de Agricultura procederá a la redacción del plan por cuenta de su titular.

2. Aurreko puntuan adierazo dan epea iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan biharamunetik zenbatu beharrekoa izango da.

3. Mendi eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak, egiten diran alegazinoak eta azterlan eta egitasmoak ikusirik, bidezkoa dana erabagiko dau, aldarazpen egokiak, hala danean, eginez.

4. Antolamendu-plana behin betiko onestea Foru Aldundiaren ardurea izango da, administrazino-espedientea bialdu ondoren, jasoten danetik zenbatu beharreko hogeita hamar eguneko epean. Ganerako kasuetan Nekazaritza Sailak onetsi beharko dau.

5. Epe hori organo eskudunak ebazpenik emon barik igaroten bada, proposamenari gaitziritzi jakola uste izango da.

6. Behin betiko onespena emoteko eskumena daukan organoak erabagia Bizkaiko Aldizkari Ofizialari bialduko deutso, honek argitaratu daian.

7. Aurreko puntuetan aitatu diran planak berehala betearazoko dira, behin eurok behin betiko onetsi dabezala argitaratu ezkero.

## 55. artikulua.- Ekimen pribatuko planak

Nekazaritza Sailak mendi eta basoen jabeek egiten dabezan planak tramitatu eta, halan danean, onetsiko ditu, beronen eretxiz tresna horreek aurreko artikuluan ezarritako prozedurea erabiliz basoetako arboladiak artatu eta lehengoratzeko helburuak beteten badabez.

## 56. artikulua.- Norbanakoen mendien antolamendua

1. Norbanako baten mendi ez babesle batek aurretik horretarako hasitako administrazino-espedienteak frogatutako basogintza, ekonomia edo gizarte garrantzia daukanean, Nekazaritza Sailak mendiaren baldintzak dirala eta Administrazinoak emoten dauan epearen barruan teknikari eskudunak baimendutako plan teknikoa edo antolamendu-plana, bidezkoa dana, idatzi dagiala eskatu ahal izango deutso mendi horren titularrari.

2. Mendiaren jabeak aurreko puntuan aitatu dan agindeiari jaramonik egiten ez badeutso sei hilabete edo, halan danean, emondako luzamendua baino laburragoa ezin izan daitekean epean, Nekazaritza Sailak plana idazteari ekingo deutso titularraren kontura.

CAPÍTULO I BIS[1]

## PLANES DE ORDENACIÓN DE LOS RECURSOS FORESTALES

### Artículo 56 bis.-

1. Los Planes de Ordenación de los Recursos Forestales (P.O.R.F.) son instrumentos de planificación forestal, constituyéndose en una herramienta en el marco de la ordenación del Territorio, contenida en las Directrices de Ordenación Territorial, aprobada por Decreto 28/1997, de 11 de febrero, del Gobierno Vasco. Tendrán vigencia indefinida, sin perjuicio de su revisión conforme a los criterios incluidos en los propios Planes.

2. El contenido de estos planes será obligatorio y ejecutivo en las materias reguladas en esta Norma Foral, prevaleciendo la aplicación de sus determinaciones sobre los instrumentos de ordenación territorial o físicos existentes. Además, tendrán carácter indicativo respecto de cualquier otra actuación, planes o programas sectoriales.

3. El ámbito territorial de los P.O.R.F., podrá ser el Territorio Histórico de Bizkaia o bien territorios forestales con característica geográficas, socio-económicas, ecológicas, culturales o paisajísticas homogéneas. Ello no obstante el ámbito Territorial de los P.O.R.F. se podrá adaptar asimismo a las Áreas funcionales establecidas en las Directrices de Ordenación Territorial en los casos en que se estime oportuno

A estos efectos tendrán la consideración de monte los terrenos así definidos en esta Norma Foral.

4. Los Planes de Ordenación de Recursos Naturales aprobados de conformidad con las Leyes sobre Conservación de la Naturaleza y de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres tendrán el carácter de P.O.R.F., siempre y cuando cuenten con el informe favorable del Departamento de Agricultura.

### Artículo 56 ter.- Contenido

1.- Los planes de Ordenación de los Recursos Forestales, contendrán al menos las siguientes determinaciones:

a) delimitación del ámbito territorial y caracterización del medio físico y biológico.

b) descripción y análisis de los montes y los paisajes existentes en ese territorio, sus usos y aprovechamientos actuales, en particular los usos tradicionales, así como las figuras de protección existentes.

I. KAPITULUA BIS[2]

## BASO BALIABIDEEN ANTOLAMENDURAKO PLANAK

### 56 bis artikulua.-

1. Baso Baliabideen Antolamendurako Planak baso plangintzarako baliabideak dira, eta beste tresna bat dira Lurraldearen antolamenduaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak onarturiko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan ezarritako moduan. Indarraldi mugagabea izango dute, Planetan jasotako irizpideen arabera berrikustearen kaltetan izan gabe.

2. Plan horietan jasotakoa derrigorrezkoa eta bete beharrekoa izango da, foru arau honek araututako gaietan. Bertan jasotakoa aplikatzea lurralde antolamendurako baliabideen edo existitzen diren baliabide fisikoen zehaztapenen gainetik egongo da. Gainera, izaera adierazlea izango du beste jarduera, plan edo sektoreko programen aurrean.

3. Baso Baliabideen Antolamendurako Planen lurralde eremua Bizkaiko Lurralde Historikoa edo ezaugarri geografiko, sozioekonomiko, ekologiko, kultural edo paisaiako ezaugarri bateratuak dituzten basoak izan ahalko dira. Aitzitik, Baso Baliabideen Antolamendurako Planen lurralde eremua Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan ezarritako Esparru funtzionaletara egokitu ahal izango da, horixe erabakitzen den kasuetan.

Ondorio horietarako, menditzat hartuko dira foru arau honetan definituriko lurrak.

4. Natura eta Eremu Naturalak Zaintzeko, eta Basoko Flora eta Fauna Babesteko Legeekin bat etorriz onartutako Baliabide Naturalen Antolamendurako Planek Baso Baliabideen Antolamendurako Plan izaera izango dute, Nekazaritza Sailaren aldeko txostena eskuratzen badute.

### 56 ter artikulua.- Edukia

1.- Baso Baliabideen Antolamendurako Planek hurrengo zehaztapenak izango dituzte gutxienez:

a) lurralde eremuaren mugaketa eta ingurune fisiko eta biologikoaren ezaugarritzea.

b) lurraldean ager daitezkeen mendi eta paisaien deskribapena eta azterketa: egungo erabilera eta aprobetxamenduak, bereziki erabilera tradizionalak, eta existitzen diren babes irudiak.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*

[2] *2007/3. Foru-Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

c) aspectos jurídico-administrativos: titularidad, montes catalogados, mancomunidades, agrupaciones de propietarios, proyectos de ordenación u otros instrumentos de gestión o planificación vigentes.

d) características socioeconómicas: demografía, disponibilidad de mano de obra especializada, tasas de paro, industrias forestales, incluidas las dedicadas al aprovechamiento energético de la biomasa forestal y las destinadas al desarrollo del turismo rural.

e) zonificación por usos y vocación del territorio. Objetivos, compatibilidades y prioridades.

f) planificación de las acciones necesarias para el cumplimiento de los objetivos fijados en el plan, incorporando las previsiones de repoblación, restauración hidrológico-forestal, prevención y extinción de incendios, regulación de usos recreativos y ordenación de montes incluyendo, cuando proceda, la ordenación cinegética, piscícola y micológica.

g) establecimiento del marco en el que podrán suscribirse acuerdos, convenios y contratos entre Administración y propietarios para la gestión de los montes.

h) establecimiento de las directrices para la ordenación y aprovechamiento de los montes, garantizando que no se ponga en peligro la persistencia de los ecosistemas y se mantenga la capacidad productiva de los montes.

i) criterios básicos para el control, seguimiento, evaluación y plazos para la revisión del plan.

2. Los P.O.R.F. incluirán los siguientes documentos:

- Memoria

- Planos de información y Ordenación

- Directrices y normas necesarias para la aplicación de sus determinaciones

3. Podrán contener también otros documentos adecuados a sus fines y naturaleza.

c) alde juridiko eta administratiboak: titulartasuna, katalogaturiko mendiak, mankomunitateak, jabekide elkarteak, antolamendurako proiektuak edo indarrean egon daitezkeen bestelako kudeaketa edo plangintza baliabideak.

d) ezaugarri sozioekonomikoak: demografia, eskulan espezializatua izateko aukerak, langabezia tasak eta baso industriak, baso biomasaren energia-aprobetxamenduari eta landa esparruko turismoari zuzendurikoak barne.

e) lurraldearen erabilera edo joeraren araberako lurralde banaketa. Helburuak, bateragarritasunak eta lehentasunak.

f) planean ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoak diren jardueren planifikazioa, oihantzeko, hidrologia eta basoak lehengoratzeko, suteak prebenitu eta itzaltzeko, eta aisialdiko erabilerak arautzeko, mendien antolamendurako aurreikuspenak erantsiz. Beharrezkoa denean, antolamendu zinegetikoa, arrai hazkuntzarena eta mikologikoa erantsiko dira.

g) Administrazioaren eta jabeen artean akordioak, hitzarmenak eta kontratuak sinatzeko esparrua ezartzea, mendien kudeaketarako.

h) mendien antolamendu eta aprobetxamendurako gidalerroak ezartzea, ekosistemen iraupena arriskuan jarriko ez dela eta mendien ahalmen produktiboa mantenduko dela bermatuz.

i) plana kontrolatzeko, jarraitzeko, ebaluatzeko eta berrikusteko epeak ezartzeko oinarrizko irizpideak.

2. Baso Baliabideen Antolamendurako Planek hurrengo dokumentu hauek izango dituzte:

- Memoria

- Informazio eta Antolamendurako Planoak.

- Ezarritako zehaztapenak aplikatzeko beharrezkoak diren gidalerro eta arauak.

3. Xede eta izaerarekin bat etor daitezkeen beste dokumentu batzuk ere izan ahalko ditu.

## Artículo 56 quater.- Procedimiento

1. El procedimiento para la elaboración de los P.O.R.F. se iniciará de Oficio mediante Orden Foral del Departamento de Agricultura, por sí o a iniciativa de los particulares, Entidades o Agrupaciones interesadas en el sector forestal.

La Orden Foral contendrá como mínimo la delimitación del ámbito territorial del área sometida a ordenación y los objetivos y directrices para la elaboración del documento

2. La Dirección de Montes elaborará un documento preliminar del Plan de Ordenación de Recursos Forestales.

3. Este documento será sometido a informe de las Entidades Locales afectadas, así como a Entidades y Asociaciones representativas de los propietarios forestales privados y demás agentes sociales e institucionales actuantes en su ámbito territorial en materia forestal.

4. El documento será remitido a la Comisión de Montes de Bizkaia, para emisión de informe. Transcurrido un mes desde la recepción del documento sin que el informe requerido se haya emitido, se entenderá aquel dictaminado en sentido favorable.

5. El Plan de Ordenación de los Recursos Forestales será aprobado inicialmente mediante Orden Foral del Departamento de Agricultura. Acto seguido se someterá a información pública durante un periodo de sesenta días.

El Departamento de Agricultura, a la vista del resultado de la información pública procederá a la elaboración final del Plan de Ordenación de los Recursos Forestales, con las modificaciones que, en su caso, procediesen. Si dichas modificaciones significasen un cambio sustancial en los criterios y soluciones del P.O.R.F., será este objeto de un nuevo trámite de información pública con los mismos requisitos que el anterior.

6. Corresponderá la aprobación definitiva del Plan de Ordenación de los Recursos Forestales al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante Decreto Foral, que se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia.

7. Los P.O.R.F. estarán sometidos al procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental regulado por Decreto 183/2003, de 22 de julio.

## 56 quater artikulua.- Prozedura

1. Baso Baliabideen Antolamendurako Planak egiteko prozedurak ofizioz hasiko dira Nekazaritza Sailaren Foru Agindu bidez edo baso sektorean interesdun diren partikular, Erakunde edo Elkarteen ekimenez.

Foru Aginduak antolamendupean jarritako eremuaren lurralde esparruaren mugaketa izango du gutxienez, dokumentua egiteko helburu eta gidalerroekin batera.

2. Mendi Zuzendaritzak Baso Baliabideen Antolamendurako Planaren atariko dokumentua egingo du.

3. Dokumentu horrek eragindako toki erakundeen txostena beharko du, baso jabe pribatuen elkarte eta erakunde ordezkariena eta lurralde eremuan, basoen gaian, jardule diren gainerako agente sozial eta erakundeena bezalaxe.

4. Dokumentua Bizkaiko Basoen Batzordeari helaraziko zaio, hark txostena egin dezan. Dokumentua helarazten denetik hilabete igarotzen bada eskatutako txostena egin gabe, aldeko iritzia dagoela ulertuko da.

5. Baso Baliabideen Antolamendurako Plana Nekazaritza Sailaren Foru Agindu bidez onartuko da hasiera batean. Ondorenean, jendaurreko informazioko izapidea beteko da hirurogei eguneko epez.

Nekazaritza Sailak, jendaurreko informazioko izapidearen emaitza kontuan hartuta, Baso Baliabideen Antolamendurako Planaren behin betiko idazketa egingo du, behar izan daitezkeen aldarazpenak erantsiz. Aldarazpen horiek Baso Baliabideen Antolamendurako Planaren irizpide eta ebazpenen aldaketa esanguratsua ekarriko balute, jendaurreko informazioko izapide berria garatu beharko litzateke, aurrekoaren baldintza berdinak betez.

6. Baso Baliabideen Antolamendurako Planaren behin betiko onarpena Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren ardura izango da, Foru Dekretu bidez. Adierazitako Dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

7. Baso Baliabideen Antolamendurako Planak uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak arautritako Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Bateratuko prozedurapean egongo dira.

CAPÍTULO II
## APROVECHAMIENTOS FORESTALES

SECCIÓN 1ª
**DISPOSICIONES GENERALES**

### Artículo 57.- Finalidad del aprovechamiento

Los aprovechamientos de los montes y áreas forestales, sean públicos o de particulares, se realizarán atendiendo a su carácter de recursos naturales renovables, procurando armonizar la explotación racional de los mismos con la conservación y mejora del medio natural.

### Artículo 58.- Intervención administrativa

El Departamento de Agricultura regulará la explotación de los montes o áreas forestales, cualquiera que sea la naturaleza del aprovechamiento, con sujeción a lo dispuesto en la presente Norma Foral y demás disposiciones que sean de aplicación.

SECCIÓN 2ª
**EN LOS MONTES DE UTILIDAD PÚBLICA Y PROTECTORES**

### Artículo 59.- Planificación de los aprovechamientos

1. El aprovechamiento de los montes o áreas forestales requerirá, además de los Planes de Ordenación Forestales y de los Planes Técnicos, la previa aprobación por el Departamento de Agricultura del correspondiente Plan Anual de Aprovechamiento y Mejora.

2. En los casos en los que las características del monte o de los aprovechamientos de los que éste sea susceptible así lo aconsejen, los planes a los que hace referencia en el apartado anterior podrán tener una periodicidad superior a la anual.

3. En los montes o áreas forestales regulados por un Plan de Ordenación o Plan Técnico, los Planes Anuales de Aprovechamiento y Mejora se ajustarán necesariamente a lo establecido en aquellos.

4. El Departamento de Agricultura dictará las condiciones técnico-facultativas que deberán regir tales aprovechamientos, incluido el precio base. Estas condiciones serán de obligado cumplimiento para los titulares de los montes o áreas forestales.

II. KAPITULUA
## BASO-APROBETXAMENDUAK

1go. ATALA
**XEDAPEN OROKORRAK**

### 57. artikulua.- Aprobetxamenduaren helburua

Mendi eta basoen aprobetxamenduak, mendi edo basoak publikoak zein norbanakoenak izan, natur baliabide barriztagarriak dirala kontutan hartuta egingo dira, baliabide horreen ustiapen zentzunezkoa eta ingurugiroaren artapen eta hobekuntza batera joan daitezan ahaleginduz.

### 58. artikulua.- Administrazinoaren eskuhartzea

Nekazaritza Sailak mendi edo basoen ustiapena araupetuko da, aprobetxamendua edozelakoa izanik, honako foru arau honek eta aplikatu daitekezan ganerako xedapenek dinoenari lotuz.

2. ATALA
**HERRI ONURAKO MENDIETAN ETA MENDI BABESLEETAN**

### 59. artikulua.- Aprobetxamenduen ganeko plangintza

1. Mendi edo basoak aprobetxatzeko, basogintzako antolamendu planak eta plan teknikoez gain, aurretik Nekazaritza Sailak aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko plan egokia onetsi beharko dau.

2. Mendiaren ezaugarriek edo mendi horretan egin daitekezan aprobetxamenduen ezaugarriek hori aholkatzen dabenean, aurreko puntuan aitatu diran planek ezin euki izango dabe urtebete baino gehiagoko aldizkotasuna.

3. Antolamendu-planak edo plan teknikoak araupetzen dituan mendi edo basoetan aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko planak nahitaez lotuko jakoz hareetan ezarritakoari.

4. Nekazaritza Sailak aprobetxamendu horreetan aginduzko izango diran nahizgeroko baldintza teknikoak emongo ditu, oinarrizko prezioa barruan dala. Baldintza horreek nahitaez bete beharko dabez mendi edo basoen titularrek.

## Artículo 60.- Excepciones

1. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, podrán autorizarse aprovechamientos de restos de incendios, árboles derribados por los agentes naturales y demás supuestos de similar naturaleza cuya extracción no se estime conveniente aplazar.

2. Los rendimientos obtenidos en estos casos se destinarán principalmente a la recuperación de la zona afectada.

## 60. artikulua.- Salbuespenak

1. Aurreko artikuluak dinoana gorabehera, suteetako hondakinen, naturearen agenteek erauzten dabezan arbolen eta ataratea atzeratzea egoki ez dala uste dan ganerakoen aprobetxamenduak baimendu ahal izango dira.

2. Holakoetan lortzen diran etekinak kalteak daukazan aldea lehengoratzeko erabiliko dira.

## Artículo 61.- Información sobre los aprovechamientos forestales

1. Con el fin de que por el Departamento de Agricultura se elabore el Plan Anual de Aprovechamiento y Mejora de los montes de utilidad pública, los Ayuntamientos o Entes públicos titulares de tales montes remitirán un expediente forestal debidamente cumplimentado en el que se indicarán los aprovechamientos de los que aquellos sean susceptibles.

2. Del mismo modo y con idéntico propósito, los propietarios de montes protectores remitirán al Departamento de Agricultura cumplida información sobre los aprovechamientos que se realizaren en ellos.

## 61. artikulua.- Baso-aprobetxamenduei buruzko informazinoa

1. Nekazaritza Sailak herri onurako mendien aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko plana egin dagian, mendi horreen titularrak diran udal edo toki erakundeek behar dan moduan betetako basogintza-espedientea bialduko dabe; espedientean mendiotan egin daitekezan aprobetxamenduak adierazoko dira.

2. Era berean, eta asmoa bera dala, mendi babesleen jabeek mendi horreetan egiten diran aprobetxamenduei buruzko informazino osoa bialduko deutsoe Nekazaritza Sailari.

## Artículo 62.- Extracción de los aprovechamientos

1. La extracción de los aprovechamientos forestales de los montes de utilidad pública y protectores se efectuará por las pistas, caminos o arrastraderos existentes, o por los que se determinen en los planes aprobados por el Departamento de Agricultura.

2. Cuando fuera necesario abrir otras vías de extracción distintas a las ya existentes o proyectadas, por los titulares interesados deberá solicitarse del Departamento de Agricultura la pertinente autorización. Finalizada la operación, los solicitantes deberán dejar tales vías en condiciones adecuadas para su uso posterior, o reponer el terreno al estado en el que se hallaba antes de su apertura de conformidad con lo que se haya señalado en la autorización.

## 62. artikulua.- Aprobetxagaiak ataratea

1. Herri onurako mendietako eta mendi babesleetako aprobetxagaiak atarateko orain dagozan baso-bide, bide edo narra-bideak erabiliko dira, edo Nekazaritza Sailak onesten dituan planetan adierazoten diranak.

2. Orain dagozan edo proiektaturik dagozan bideak ez beste batzuk edegi behar badira aprobetxagaiak atarateko, titularrek baimen egokia eskatu beharko deutsoe Nekazaritza Sailari. Lanak amaitutakoan, eskatzaileek bideak gero erabilteko moduan itzi beharko dabez, edo lurra bidea egin baino lehen egoan moduan itzi, bata edo bestea baimenean agertzen danaren arabera.

SECCIÓN 3ª
**EN OTROS MONTES**

## Artículo 63.- Autorización administrativa

1.[1] Los aprovechamientos forestales de los montes públicos no catalogados y los de particulares no protectores o de especial protección requerirán la previa autorización del Departamento de Agricultura, previa solicitud del

3. ATALA
**OSTERANTZEKO MENDIETAN**

## 63. artikulua.- Administrazinoaren baimena

1.[2] Katalogatu gabeko mendi publikoen baso aprobetxamenduak eta babesle edo babes bereziko ez diren partikularrenek Nekazaritza Sailaren aurretiko baimena behar izango dute, titularraren aurretiko eskaeraren ondotik.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*

[2] *2007/3. Foru-Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

titular, acompañada de certificación catastral acreditativa de que la finca radica en el término municipal correspondiente.

2. En cualquier caso, corresponde a la citada Administración dictar las condiciones técnicas que permitan la correcta ejecución de las operaciones inherentes al aprovechamiento, así como señalar las medidas que fueran necesarias para favorecer la regeneración del arbolado.

3. En la autorización se podrá indicar la necesidad de señalar previamente los ejemplares a apear, así como el reconocimiento final del aprovechamiento, debiendo realizarse tales operaciones por técnicos del Departamento de Agricultura.

### Artículo 64.- Plazos

1. Cuando se trate de aprovechamientos en montes o áreas forestales pobladas con las especies determinadas en la Disposición Adicional Tercera, una vez solicitada la pertinente autorización, ésta se entenderá concedida si en el plazo de veinte días la Dirección General de Montes y Espacios Naturales no resuelve sobre la misma.

2. Cuando el aprovechamiento se refiera a montes poblados con otras especies no comprendidas en lo dispuesto en el párrafo anterior, si transcurrido el plazo de sesenta días la Dirección General de Montes y Espacios Naturales no hubiera emitido ninguna resolución al respecto, se entenderá estimada la solicitud.

3. La lista de especies citada en el apartado 1 de este artículo, podrá ser modificada mediante Orden Foral del Departamento de Agricultura.

### Artículo 65.- Caducidad

1. La autorización sobre aprovechamientos de un monte o área forestal caducará al año de la fecha de su concesión salvo que, previa petición justificada del interesado, la Dirección General de Montes y Espacios Naturales conceda una prórroga de la misma.

2. En dicha prórroga en modo alguno se podrán variar los aprovechamientos previamente autorizados, ni los lugares en los que aquellos hubieran de realizarse.

### Artículo 66.- Repoblación de montes deforestados

1. Las cortas a hecho o aclareos intensivos llevarán aparejada la obligación por parte del titular del monte o área forestal de repoblar el terreno deforestado en el plazo de dos años, quedando prohibido el pastoreo en el área afectada por el tiempo que fuera preciso para permitir el desarrollo de las especies plantadas.

Horrekin batera, katastroko ziurtagiria behar izango da, eta bertan adierazi beharko da finka dagokion udalerriaren mugen barruan kokatzen dela.

2. Edozelan be, Administrazinoari jagoko aprobetxamenduari loturik dagozan lanak behar dan legez egiteko modua emoten daben baldintza teknikoak ipintea, bai eta arbolak sortu daitezan behar diran neurriak hartzea be.

3. Baimenean agindu ahal izango da aldez aurretik apeatuko diran arbolak adierazo beharra, bai eta aprobetxamenduari azkenean gainikuspena egitea be; lan bi horreek Nekazaritza Saileko teknikoek egin beharko dabez.

### 64. artikulua.- Epeak

1. Aprobetxamenduak Hirugarren Erabagi Gehigarrian zehaztutako espezieak dagozan mendi edo basoetan egiten diranean, behin baimen egokia eskatu ezkero, hogei eguneko epean Basoen eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak horri buruzko ebazpenik emoten ez badau, baimena emon egin dala ulertuko da.

2. Ostera, aprobetxamendua aurreko atalean aitatutakoez besteko espeziedun mendiei buruz danean hogei eguneko epea igaro ondoren Basoen eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak horri buruzko ebazpenik emoten ez badau, eskabidea onartu egin dala ulertuko da.

3. Artikulu honen 1go. azpiartikuluan aitatutako espezie zerrendea Nekazaritza Sailaren foru aginduz aldatu leiteke.

### 65. artikulua.- Iraungipena

1. Mendi edo baso batean aprobetxamenduak egiteko baimena emoten danetik urtebetera iraungiko da, Basoen eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak, interesatuak bidezko eskabidea egin ondoren, baimen horren luzamendua emon ezean.

2. Luzamendu horretan, ezergaitik be ezin aldatu izango dira aurretik baimendutako aprobetxamenduak, ezta eurok egin behar diran tokiak be.

### 66 artikulua.- Arbolak ebagitako mendietako birlandaketak

1. Arbola-ebaketek edo garbalketa intentsiboek eurakaz dakarre mendi edo basoaren titularrak urte biko epearen barruan arbolak ebagitako lurrean zugatz barriak landatu behar izatea; alde horretan landatzen diran espezieak hazi daitezan behar dan beste denporaz artzaintza galarazo egingo da.

2. La obligación a la que se refiere el apartado anterior se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en los Planes de Ordenación o Planes Técnicos, o de las previsiones que en virtud de la normativa aplicable efectuase el Departamento de Agricultura.

2. Aurreko puntuan aitatu dan betebeharra antolamendu-planek edo plan teknikoek dinoenaren kalte barik dala ulertuko da, bai eta, aplikatu daitekean arautegia dala bide, Nekazaritza Sailak egin daikezan aurrikuspenen kalte barik be badala.

### Artículo 67.- Extracción de los aprovechamientos

### 67. artikulua.- Aprobetxagaiak ataratea

Para la extracción de los aprovechamientos forestales de los montes a los que se refiere esta sección se estará a lo dispuesto en el artículo 62 de la presente Norma Foral.

Atal honetan aitatu diran mendietako aprobetxagaiak ataratеko, honako foru arau honen 62. artikuluak dinoana beteko da.

## CAPÍTULO III
## OTROS APROVECHAMIENTOS

## III. KAPITULUA
## BESTELAKO APROBETXAMENDUAK

SECCIÓN 1ª
**PASTOREO**

1go.ATALA
**ARTZAINTZA**

### Artículo 68.- Regla general

### 68. artikulua.- Arau orokorra

1. El aprovechamiento de los pastos en los montes de utilidad pública y en los declarados protectores se realizará de forma que sea compatible con la conservación y mejora de los mismos, y conforme al Plan de Ordenación, Plan Técnico o Plan Anual de Aprovechamiento y Mejora aprobado.

1. Herri onurako mendi eta babesle legez autortu diran mendietako bazka-larreen aprobetxamendua mendiok kontserbatzeko eta hobetzeko moduan burutuko da; era berean, dalako aprobetxamendu hori Antolamendu Plana, Plan Teknikoa edo onartu dan Aprobetxamendu eta Hobekuntzarako Urteko Planaren arabera be egingo da.

2. El Departamento de Agricultura ordenará y promoverá el pastoreo en los montes procurando la coordinación y compatibilización entre los aprovechamientos silvopastorales.

2. Nekazaritza Sailak mendietako artzaintza antolatu eta sustatuko dau, horretarako basoen eta artzaintzaren aprobetxamenduak euren artean koordinatuta eta bateratuta egon daitezala ahaleginduz.

### Artículo 69.- Incompatibilidades

### 69. artikulua.- Bateraezintasunak

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, cuando las exigencias silvícolas o las características de los terrenos sobre los que se asientan los montes fueran incompatibles con el pastoreo, éste podrá limitarse a determinadas épocas, zonas, especies o cargas de ganado e, incluso, prohibirse, a juicio del Departamento de Agricultura.

Aurreko artikuluan xedatu dana gorabehera, basoen eskakizunak edo mendien lurren ezaugarriak artzaintzagaz bateratu ezin diranean, artzaintza garai, inguru, abereen espezie edo kopuru zehatz batzuetara mugatu ahal izango da eta, bai galarazo be Nekazaritza Sailak halan egoki uste badau.

### Artículo 70.- Atención preferente a las necesidades vecinales[1]

### 70. artikulua.- Auzotarren beharrizanei erantzuteko lehentasuna[2]

1. Los planes de aprovechamiento de los montes de utilidad pública regularán el pastoreo en los mismos, atendiendo preferentemente a las necesidades y sostenimiento del ganado de los vecinos de los municipios en los que aquellos se encuentren pero respetando los derechos de aprovechamiento de pastos, que otros pueblos pudieran ostentar en virtud de acuerdo o convenios con los Ayuntamientos titulares del monte.

1. Herri onurako mendien aprobetxamendua egiteko planek mendiotako artzaintza arautuko dute, eta lehentasuna emongo die, batez ere, mendiok dauden udalerrietako auzotarren abereen beharrizanei eta mantenimenduari, beti ere bazka-larrak aprobetxatzeko beste herri batzuk, mendien titularitatea duten udalekiko akordio edo hitzarmen bidez, dituzten eskubideak zainduz.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*

[2] *2007/3. Foru-Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

2. Para que el ganado pueda pastar en los Montes de Utilidad Pública, deberá acreditarse previamente el carácter ganadero o agricultor de los interesados en el aprovechamiento y estar censado el ganado en los Ayuntamientos titulares del monte. Ello no obstante, en caso de carga ganadera excesiva, tendrán prioridad en la adjudicación del aprovechamiento de pastos, aquellos ganaderos/as que trabajen directa y personalmente sus fincas, estén de alta en la Seguridad Social Agraria como trabajador en activo y acrediten que más del 50% de su renta proviene de la actividad agroganadera, de acuerdo con la Entidad titular del monte.

3. Cuando hubiera pastos sobrantes, éstos podrán enajenarse, preferentemente, a aquellos titulares e explotaciones ganaderas que acrediten responder a un adecuado plan de gestión.

## Artículo 71.- Requisitos previos

Antes de iniciarse el aprovechamiento de los pastos, deberá acreditarse ante la Entidad titular del monte objeto del aprovechamiento tanto la inscripción del ganado en el registro pecuario correspondiente, como el abono del canon establecido.

## Artículo 72.- Pastoreo en otros montes

En el resto de los montes públicos y en los de particulares, el pastoreo se sujetará a los principios generales de equilibrio silvopastoral recogidos en la presente Norma, sin perjuicio de las limitaciones que en virtud de la legislación especial aplicable, principalmente en materia de incendios, pueda imponer el Departamento de Agricultura.

SECCIÓN 2ª[1]
**CAMBIOS DE USO FORESTAL**

## Artículo 73. Cambios de Uso Forestal

1.- Podrá procederse al cambio de uso forestal de un monte por razones de interés general o por concurrencia de otra utilidad pública, sin perjuicio de lo dispuesto en la normativa ambiental.

En los demás casos, el cambio de uso forestal tendrá carácter excepcional y requerirá autorización del Departamento Foral de Agricultura y del titular del monte.

2.- a) En los supuestos de cambio de uso forestal en los montes catalogados, protectores y de especial protección y, en general, en aquellos montes o áreas forestales en los que concurra alguna de las cir-

2. Auzotarren abereek herri onurako mendietan bazkatu ahal izateko, aprobetxamenduan interesatuta dagozanek abeltzainak edo nekazariak direla frogatu beharko dute aurretiaz. Edonola ere, ganadu gehiegi izanez gero, bazka-larren aprobetxamendurako lehentasuna izango dute beraien finketan zuzenean jardun, nekazarien gizarte segurantzan jarduneango langile bezala alta emanda egon eta errentaren %50etik gora nekazaritza-abelzaintzatik datorkiela egiaztatzen dutenek, beti ere mendiaren titularitatea duen Erakundearekin bat etorrita.

3. Bazka-larreren bat sobran balego besterenganaketeari ekiteko aukerea egongo litzateke; kasu horretan kudeaketa plan egoki bat daukela frogatzen daben abeltzaintza ustiategien titularrek izango leukie lehentasuna.

## 71. artikulua.- Aurretiazko beharkizunak

Bazka-larreen aprobetxamendua egiten hasi baino lehenago, aprobetxatuko dan mendiaren entitate titularrari abereak jagoken abere-erregistroan inskribitu dirala frogatu beharko jako, baita ezarritako kanonaren abonua erakutsi be.

## 72. artikulua.- Beste mendi batzuetako artzaintza

Ganerako herri mendietan eta norbanakoen mendietan, artzaintzak honako arau honetan agertzen diran eta basoen eta artzaintzaren arteko orekea lortu gura daben oinarrizko printzipioak bete beharko dauz; hori guztia, aplikatu daitekean legeria berezia dala bide, Nekazaritza Sailak, batez be suteei jagokenez, ezarri ahal dauzan mugen kalte barik.

2. ATALA[2]
**BASO ERABILEREN ALDAKETAK**

## 73. artikulua.- Baso Erabileren Aldaketak

1.- Mendi baten baso erabilera aldatu ahal izango da interes orokorreko arrazoiengatik edo erabilera publikoko beste arrazoi batzuk agertzeagatik, ingurumen araudian ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

Gainerako kasuetan, baso erabileraren aldaketek ezohiko izaera izango dute eta Nekazaritza Foru Sailaren eta mendiaren titularraren baimena behar izango du.

2.- a) Katalogaturiko mendien, mendi babesleen edo babes berezikoen erabilera aldatzeko suposamenduetan eta, orokorrean, foru arau honetako 8. artikuluko ezaugarriren bat agertzen duten mendi

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*
[2] *2007/3. Foru-Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

cunstancias del artículo 8 de esta Norma Foral, el solicitante deberá justificar la prevalencia del interés del nuevo uso sobre el de utilidad pública o el que califica al monte.

b) En los montes de utilidad pública y en los declarados protectores no podrá realizarse roturación alguna con destino a su cultivo agrícola.

No obstante, cuando la mejora de los pastos o la regeneración forestal requiera la roturación del monte, el Departamento de Agricultura previa solicitud del interesado, podrá concederla siempre que, además, la superficie arbolada no supere el veinte por ciento del terreno.

En cualquier caso, y siempre que ello fuera posible, deberá preverse la roturación de los montes en los Planes Anuales de Aprovechamiento y Mejora.

El Departamento de Agricultura deberá tener en cuenta antes de autorizar la roturación solicitada, entre otras cuestiones, que no existe peligro de erosión o de disminución de la calidad de los terrenos.

c) También será motivo de denegación la existencia de especies de fauna o flora protegidas o catalogadas por algún régimen de protección.

d) Transcurrido un plazo de seis meses sin que el Departamento de Agricultura haya dictado y notificado la resolución oportuna, se entenderá desestimada la solicitud.

3.- En los demás montes el/la interesado/a deberá presentar proyecto elaborado por un técnico competente y visado por el Colegio correspondiente, acompañado de su correspondiente E.I.A., en la que se justifique la idoneidad de los terrenos para el uso propuesto. El cambio solicitado se denegará cuando por razón de la pendiente, tipo de suelo o por otras causas, exista peligro de erosión o de disminución de la calidad de los terrenos y o de afección al régimen o calidad de las aguas.

4.- En los terrenos forestales temporales a que se refiere el artículo 6.2 de esta Norma Foral, para el cambio de uso forestal en usos agrícolas o ganaderos el/la titular del monte presentará la solicitud en el Departamento de Agricultura, que podrá condicionar la autorización del cambio de uso a la adopción de medidas correctoras cuando se aprecie peligro de erosión, así como a la obtención de una dimensión mínima de la explotación resultante.

edo basoetan, eskatzaileak erabilera berriaren interesa herri erabileraren edo mendia kalifikatzen duenaren aurrean nagusi dela justifikatu beharko du.

b) Herri erabilerako mendietan eta babesle deklaraturikoetan ezingo da inolako luberritzerik egin nekazal laborantzarako.

Aitzitik, bazkalekuen hobekuntzek edo baso birsorkuntzek mendiaren luberritzea eskatzen badute, Nekazaritza Sailak huraxe baimentzeko aukera izango du, interesdunaren eskaeraren ondotik. Horretarako, gainera, zuhaitzez betetako azalerak ezingo du lursailaren ehuneko hogeia gainditu.

Edonola ere, eta posible denean, mendien luberritzea ezarri egin beharko da Aprobetxamendu eta Hobekuntzako Urteko Planetan.

Eskaturiko luberritzea baimendu aurretik, Nekazaritza Sailak higadurarako edo lursailen kalitatea gutxitzeko arriskurik ez dagoela aztertu beharko du, besteak beste.

c) Baimena ukatzeko arrazoi ere izango da babes erregimenen batek babestu edo katalogaturiko fauna edo flora espezieak egotea.

d) Nekazaritza Sailak dagokion ebazpena eman eta jakinarazi gabe sei hilabeteko epea igarotzean, eskaera gaitzetsi egin dela ulertuko da.

3.- Gainerako mendien kasuan, interesdunak proiektu bat aurkeztu beharko du, teknikari trebatu eta dagokion Elkargoaren onespena duenak eginikoa. Horrekin batera, Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazioa aurkeztu beharko da, lursailak proposaturiko erabilerarako egokiak direla justifikatuz. Eskaturiko aldaketa gaitzetsi egingo da malda, lur mota edo beste arrazoi batzuengatik higadura izateko edo lursailen kalitatea gutxitzeko arriskua dagoenean, eta/edo ur erregimenari edo kalitateari eragiteko arriskua dagoenean.

4.- Foru arau honetako 6.2 artikuluak adierazitako aldi baterako baso lursailetan, baso erabilera nekazaritza edo abeltzaintzako erabileretara aldatzeko, mendiaren titularrak eskaera aurkeztu beharko dio Nekazaritza Sailari. Hark erabilera aldaketarako baimena baldintzatzeko aukera izango du, neurri zuzentzaileak jarriz higadura arriskua aurreikusten denean. Halaber, proposaturiko ustiapenaren gutxieneko neurria lortzea ezarri ahal izango du.

## Artículo 74.- Roturación en montes no catalogados y particulares no protectores[1]

SECCIÓN 3ª[3]
**USO RECREATIVO DE LOS MONTES**

## Artículo 75.- Regulación

1. Tendrán carácter público los usos recreativos en montes públicos, protectores y de especial protección respetuosos con el medio natural, siempre que se realicen sin ánimo de lucro y de acuerdo con lo dispuesto en esta Norma Foral y disposiciones de desarrollo y en los planes aplicables, y siempre que sean compatibles con los aprovechamientos, autorizaciones o concesiones legalmente establecidos.

2. La Diputación Foral podrá regular los usos o actividades recreativas de los montes cuando por la afluencia de visitantes o la fragilidad del medio, a la vista de los informes técnicos pertinentes, así lo requiera la defensa y protección del medio natural.

## Artículo 76.- Principios básicos

El uso recreativo de los montes o áreas forestales deberá responder a los criterios siguientes

a) Está prohibida cualquier actividad que limite o perjudique el normal desarrollo de las especies de fauna y flora que pueblen o habiten los montes.

b) Podrá limitarse o prohibirse el uso de las pistas forestales para la práctica de actividades recreativas. En especial está prohibido el paso de cualquier tipo de vehículo no afecto en las zonas en que se estén ejecutando obras, aprovechamientos forestales o por motivos de prevención de incendios forestales.

c) Las acampadas en los montes de utilidad pública y protectores se realizarán con arreglo a lo establecido en la normativa vigente en la materia y deberán contar, en las épocas y zonas en las que reglamentariamente se determine, con la autorización del titular del monte y del Departamento de Agricultura. En ningún caso podrá acamparse a menos de cien metros de las fuentes, manantiales o cualesquiera cursos de agua

## 74. artikulua.- Katalogatu bako mendietako eta babesle ez diran norbanakoen mendietako lubarriketak[2]

3. ATALA[4]
**MENDIEN AISIALDIKO ERABILERA**

## 75. artikulua.- Araupeketea

1. Mendi publikoetan, mendi babesleetan eta babes berezikoetan izaera publikoa izango dute ingurumenarekin errespetuzkoak diren aisialdi-erabilerak, betiere, irabazi asmorik gabe egiten badira, foru arau honetan eta garapeneko xedapenetan, eta aplika daitezkeen planetan ezarritakoarekin bat etorriz. Legeak ezarritako aprobetxamendu, baimen eta lagapenekin bateragarriak izan beharko dute.

2. Foru Aldundiak mendietako erabilerak edo aisialdiko jarduerak arautu ahal izango ditu, bisitari ugari izateagatik edo ingurunea ahula izateagatik, horixe behar bada ingurunea defendatu eta babesteko. Horretarako, teknikari eskudunek txostena egin beharko dute.

## 76. artikulua.- Oinarrizko printzipioak

Mendien edo basoen aisialdi-erabilerek hurrengo irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) Mendia estaltzen duen floraren edo bertan bizi den faunaren espezieen garapen normala mugatu edo kaltetzen duen jarduera oro debekaturik dago.

b) Aisialdiko jarduerak egiteko erabiltzen diren baso pisten erabilera mugatu edo debekatu ahal izango da. Bereziki, debekaturik dago obrak gauzatzen ari diren zonaldeari edo baso aprobetxamenduei atxiki gabeko edozein ibilgailu sartzea. Basoko suteak ekiditeko arrazoiengatik ere bestelako ibilgailuak sartzea debekatzen da.

c) Erabilera publikoko mendietan eta mendi babesleetan kanpatzea gaian indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez egingo da. Araudiak ezarritako garai eta zonaldeetan, mendiaren titularraren eta Nekazaritza Sailaren baimena izan beharko da. Edonola ere, ezingo da kanpatu iturri, iturburu edo beste edozein ur etorritik ehun metro baino gutxiagoko distantziara.

[1] *Derogado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*
[2] *2007/3. Foru-Arauak indargabetua. § E4an agertzen da*
[3] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*
[4] *2007/3. Foru- Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

d) Está prohibida la publicidad estática en los montes o áreas forestales.

e) Deberán mantenerse en todo caso los montes o áreas forestales libres de elementos extraños a los mismos. Los/as visitantes o excursionistas serán responsables de la recogida y extracción del Monte de los residuos que originen. En caso de eventos organizados, como marchas a pie, excursiones, etc., los/as promotores/as responderán solidariamente de estas obligaciones.

d) Publizitate estatikoa debekaturik dago mendi edo basoetan.

e) Mendi edo basoak haiei arrotzak zaizkien elementuetatik salbu mantendu beharko dira beti. Bisitariak edo txangozaleak berek eragindako hondakinak biltzearen eta menditik ateratzearen arduradunak izango dira. Antolaturiko ekitaldien kasuan, oinezko ibilaldiak, txangoak, etab. kasu, antolatzaileek betebehar horiez arduratu beharko dute.

## Artículo 76 bis.- Circulación de Vehículos

1. La circulación de todo tipo de vehículos debe respetar tanto el medio como los bienes y derechos de los titulares de los terrenos y los derechos de los peatones y demás usuarios, y no debe causar peligro, perjuicios o molestias innecesarias a las personas y a los ecosistemas naturales.

La velocidad máxima autorizada en las pistas forestales estará limitada a 30 kilómetros por hora

2. La circulación y aparcamiento de cualquier tipo de vehículos que no estuviera afecto a aprovechamientos forestales, agropecuarios u otros usos específicamente determinados no podrá realizarse fuera de las pistas o lugares especialmente previstos para ello, por los titulares de los montes.

3. Salvo el supuesto previsto en el apartado anterior estará prohibida la circulación de vehículos que se realice campo a través, excepto en los circuitos especialmente habilitados para ello que cuenten con la autorización del Departamento de Agricultura

4. La realización de actividades de circulación de vehículos en grupo y de competiciones deportivas en los montes precisarán además de la conformidad de sus titulares y de las licencias, en su caso, autorización del Departamento de Agricultura

A tal efecto el/la promotor/a de la actividad presentará la correspondiente solicitud en la que indicará el itinerario previsto y régimen de participación. Será responsabilidad del promotor o promotora la señalización del itinerario y protección del mismo, así como la retirada de los materiales empleados y la reparación de los daños producidos en las pistas y caminos afectados. El/la promotor/a será asimismo responsable solidariamente del incumplimiento de las condiciones de la autorización, por los participantes en la actividad.

El Departamento de Agricultura podrá imponer modificaciones o limitaciones en el itinerario propuesto e incluir los condicionantes específicos que se consideren necesarios para garantizar la preservación del medio natural.

## 76 bis artikulua.- Ibilgailuen zirkulazioa

1. Edozein motatako ibilgailuen zirkulazioak ingurunea nahiz lursailen titularren ondasun eta eskubideak errespetatu beharko ditu, oinezkoen eta gainerako erabiltzaileen eskubideak bezalaxe. Ondorioz, zirkulazioak ez du inolako arrisku, kalte edo beharrezkoa ez den eragozpenik eragingo, ez pertsonei, ez ekosistema naturalei.

Baso pistetan baimendutako gehieneko abiadura 30 kilometro ordukoa izango da.

2. Baso aprobetxamenduei, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapenei edo zehazki ezarritako beste erabilera batzuei atxiki gabeko edozein ibilgailuren zirkulazioa eta aparkamendua ezingo da mendien titularrek horretarako aurreikusitako pista edo tokietatik kanpo egin.

3. Aurreko atalean ezarritako suposamendua salbu, debekaturik egongo da mendian zehar ibilgailuekin ibiltzea, Nekazaritza Sailaren baimena izanda horretarako bereziki ezarritako zirkuituetan salbu.

4. Mendian ibilgailuetan taldeka ibiltzearen jarduerak garatzeak eta kirol lehiaketak egiteak titularren adostasuna eta lizentziak behar izango dituzte. Horrez gain, Nekazaritza Sailaren baimena ere behar izango da.

Horretarako, jardueraren antolatzaileak dagokion eskaera aurkeztuko du. Bertan, aurreikusitako ibilbidea eta parte-hartze erregimena zehaztu beharko ditu. Antolatzailearen erantzukizuna izango da ibilbidea seinaleztatzea eta babestea, eta erabilitako materialak kendu eta eragindako kalteak konpontzea pistetan eta eragindako bideetan. Antolatzailea, halaber, erantzule solidario izango da jardueran parte hartzen dutenek baimenaren baldintzak betetzen ez dituzten kasuan.

Nekazaritza Sailak aldarazpenak edo mugak jarri ahal izango ditu proposaturiko ibilbidean. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen baldintza zehatzak jarri ahal izango ditu, horren bidez ingurunearen babesa bermatuko bada.

Se denegará la autorización cuando la actividad solicitada sea incompatible con lo previsto en los instrumentos de planificación y gestión aplicables

5. El Departamento de Agricultura podrá autorizar, de oficio o a instancia de las Entidades Locales, Federaciones correspondientes o de los/as particulares interesados/as rutas de bicicletas todo terreno (B.T.T.) o de actividades similares que se puedan realizar en los montes, cuando sea compatible con las características del monte y los instrumentos de gestión aplicables

El/a promotor/a deberá obtener las autorizaciones y permisos de los/as titulares de los terrenos, infraestructuras y, en general, de cuantos derechos concurran en el trazado del circuito, y le corresponderá su señalización, mantenimiento, financiación y vigilancia.

La Entidad federativa competente homologará los proyectos de ruta presentados

Las rutas creadas serán compatibles con los usos agroforestales, y con la prestación de servicios de carácter público.

Quedará interrumpida la circulación en los tramos de rutas afectados cuando sea necesario por la extracción de aprovechamientos forestales, por ejecución de obras o por prevención de incendios forestales.

El Departamento de Agricultura podrá clausurar las rutas B.T.T. cuando por razones de interés público o por la aprobación de nuevos instrumentos de gestión el uso recreativo sea incompatible con los nuevos objetivos asignados al monte o montes por los que atraviese, en todo o en parte, la ruta.

6. Reglamentariamente se dictarán normas para el desarrollo de las actividades contempladas en este artículo.

### Artículo 76. ter. Usos recreativos en montes privados no protectores

Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos anteriores y en las disposiciones que en su desarrollo se dicten, los usos o actividades recreativas de los montes se establecerán por los y las titulares de los mismos, de acuerdo con la legislación de general aplicación.

SECCIÓN 4ª
**OTROS APROVECHAMIENTOS**

### Artículo 77.- Aprovechamientos de frutos, plantas u otros productos propios de los montes

1. El Departamento de Agricultura, en el supuesto de que el aprovechamiento de frutos, plantas aromáticas y medicinales, setas, trufas y demás productos propios de los montes pudieran romper el equilibrio del ecosistema o

Baimena gaitzetsi egingo da eskaturiko jarduera aplika daitezkeen plangintza eta kudeaketa baliabideetan ezarritakoarekin bateragarria ez denean.

5. Nekazaritza Sailak lur orotako bizikletaz egiteko ibilbideak edo mendietan egin daitezkeen antzeko jarduerak baimendu ahal izango ditu ofizioz edo Toki Erakundeek, dagozkien Federazioek edo interesdun partikularrek proposatzearen ondorioz. Horretarako, beharrezkoa izango da jarduera bateragarria izatea mendiaren ezaugarriekin eta aplika daitezkeen kudeaketa baliabideekin.

Antolatzaileak lursailen, azpiegituren eta, orokorrean, zirkuituaren taxuketan ager daitezkeen eskubide guztien baimenak lortu beharko ditu, eta seinaleztapenaren, mantentzearen, finantzazioaren eta ikuskapenaren ardura izango du bere gain.

Federazio erakunde eskudunak aurkezturiko ibilbide proiektuak homologatuko ditu.

Eratutako ibilbideak bateragarriak izango dira nekazaritza eta baso erabilerekin, eta izaera publikoko zerbitzuen emakidarekin.

Eragindako ibilbide tarteetako zirkulazioa debekatu egingo da beharrezkotzat jotzen denean baso aprobetxamenduetako ateratzeengatik, obrak gauzatu behar izateagatik edo basoko suteak prebenitu behar izateagatik.

Nekazaritza Sailak lur orotako bizikletaz egiteko ibilbideak itxi ahalko ditu interes orokorreko arrazoiengatik edo kudeaketa baliabide berrien onarpenagatik, aisialdi-erabilera bateraezina bihurtzen denean ibilbideak –erabat edo neurri batean– zeharkatzen dituen mendiari edo mendiei jarritako helburu berriekin.

6. artikulu honetan ezarritako jarduerak garatzeko, arauak ezarriko dira araudi bidez.

### 76. ter artikulua. Babesle ez diren mendi pribatuetako aisialdi-erabilerak

Aurreko artikuluetan eta horien garapenean eman daitezkeen xedapenen kaltetan izan gabe, mendietako aisialdi-erabilera edo jarduerak haien titularrek ezarritakoak izango dira, orokorrean aplika daitekeen araudiarekin bat etorriz.

4. ATALA
**OSTERANTZEKO APROBETXAMENDUAK**

### 77. artikulua.- Mendietako frutu, landare eta bestelako ekoizkinen aprobetxamendua

1. Frutu, usaingozobedar, sendabedar, perretxiko, trufa eta mendietako berezkoak diran bestelako ekoizkinen aprobetxamenduak ekosistemearen orekea apurtzen badau edo espezien iraupena arriskuan ipinten badau,

poner en peligro la pervivencia de las especies, podrá someter dichos aprovechamientos a previa licencia administrativa.

Nekazaritza Sailak aprobetxamenduok aurretiazko administrazino lizentziapean jarri ahal izango dauz.

2. Las Entidades Públicas podrán acotar los montes de los que sean titulares con el objeto de regular tales aprovechamientos.

2. Herri entitateek, mendien titularrak diranean eta goian aitatu diran aprobetxamenduak araupetzeko, mendiok mugatu ahal izango dabez.

3. Se permitirá, cualquiera que sea la titularidad del monte, la recogida de muestras con fines científicos realizada por Entidades, Asociaciones, Fundaciones u otras Instituciones de similar naturaleza.

3. Entitate, erakunde, fundazino edo antzeko erakundeek baimena eukiko dabe zientzi helburuetarako behar dabezan laginak biltzeko, mendiaren titularra edozein dala be.

### Artículo 78.- Recursos minero-energéticos

La explotación de las canteras y de los recursos minero-energéticos, sin perjuicio de lo que se disponga al respecto por la normativa específica aplicable, deberá recogerse en los planes de aprovechamiento de los montes catalogados o protectores y, en los demás casos, someterse a la pertinente autorización forestal.

### 78. artikulua.- Meatze-energiako baliabideak

Harrobien eta meatze-energiako baliabideen ustiapenak, horren ganean aplikatu daitekean arautegi zehatzak xedatu dauanaren kalte barik, katalogatuta dagozan edo babesleak diran mendien aprobetxamendurako planetan erasota geratu beharko dau eta, ganerako kasuetan, horretarako behar dan basogintza-baimenaren pean jarri beharko da.

## CAPÍTULO IV
## LAS INDUSTRIAS FORESTALES

## IV. KAPITULUA
## BASO-INDUSTRIAK

### Artículo 79.- Ordenación de las industrias forestales

1. El Departamento de Agricultura promoverá la mejora de las industrias forestales. A tal efecto, podrá establecer, en colaboración y coordinación con la Administración competente en materia de industrias forestales y sin perjuicio de las competencias de esta última, un régimen de ayudas que posibiliten tal mejora.

2. Igualmente, dicha Administración impulsará cuantos convenios de colaboración entre los centros de investigación de productos forestales y las empresas del sector fueren necesarios, en orden a lograr la modernización y mejora de los procesos de transformación y la transferencia de la tecnología adecuada.

### 79. artikulua.- Baso-industrien antolamendua

1. Nekazaitza Sailak baso-industrien hobekuntza eragingo dau. Horretarako, beti be administrazino horrem eskumenen kalte barik, baso-industrien eskumena daukan administrazioagaz lankidetzan eta koordinazioan aitatutako hobekuntza ahalbidetuko dauan laguntza-erregimen bat ezarri ahal izango dau.

2. Era berean, administrazino horrek baso-ekoizkinen ikertegi eta arlo horretako enpresen artean behar diran beste lankidetza-hitzarmen bultzatuko dauz, bai eraldaketa-prozesuen modernizazinoa eta hobekuntza lortzeko eta bai egokia dan teknologiaren transferentzia be.

### Artículo 80.- Colaboración con la Diputación Foral

Las industrias forestales, por propia iniciativa o a requerimiento del Departamento de Agricultura, facilitarán información relativa a sus necesidades industriales de productos forestales, con el objetivo de que por dicha Administración se disponga de los conocimientos precisos que le permitan adecuar en la medida de lo posible los planes del aprovechamiento a las exigencias reales del sector.

### 80. artikulua.- Foru Aldundiagaz lankidetza

Baso-industriek, euren ekimenez edo Nekazaritza Sailak eskatuta, baso-ekoizkinen ganean daukezan industri beharkizunei buruz informazinoa emongo dabe. Helburua dalako administrazinoak aprobetxamendu-planen arloaren benetako eskakizunetara ahal dan neurrian egokitzeko behar dauzan ezagutzak eskuratzeko aukerea izatea da.

CAPÍTULO V

## AGRUPACION Y CONCENTRACION DE MONTES Y AREAS FORESTALES

### Artículo 81.- Agrupaciones voluntarias

1. Los titulares de terrenos o fincas forestales, públicas o particulares, podrán agruparlas con el objeto de conseguir una ordenación y gestión integral de las mismas.

2. Los titulares afectados pondrán en conocimiento del Departamento de Agricultura la agrupación realizada.

### Artículo 82.- Agrupaciones obligatorias

Las agrupaciones serán obligatorias cuando así lo acuerde el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral, a propuesta del Diputado Foral de Agricultura, por exigencias de interés público, previa incoación del oportuno expediente administrativo tramitado por la Dirección General de Montes y Espacios Naturales en el que necesariamente deberán ser oídas las partes afectadas.

### Artículo 83.- Concentraciones parcelarias

1. Cuando la mejor gestión y aprovechamiento de los montes y áreas forestales situados en una misma zona aconseje la alteración del régimen jurídico de su propiedad, el Departamento de Agricultura podrá promover la concentración parcelaria, la cual se llevará a efecto de conformidad con los dispuesto en la normativa vigente en la materia.

2. En todos los proyectos de concentración parcelaria se definirán las unidades de vegetación que deban ser conservadas. Los setos vivos calificados como de especial valor ecológico no podrán ser eliminados.

CAPÍTULO VI

## COMISION DE MONTES DE BIZKAIA

### Artículo 84.- Comisión de Montes de Bizkaia

1. Se constituye la Comisión de Montes de Bizkaia, la cual tendrá carácter de órgano colaborador del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

V. KAPITULUA

## MENDI ETA BASOEN TALDEKATZE ETA BATERAKUNTZA

### 81. artikulua.- Borondatezko taldekatzeak

1. Titularrek euren lursail eta basoko finkak, publikoak edo partikularrak, taldekatu ahal izango dabez. Helburua lursailon antolamendu eta kudeaketa integrala eskuratzea izango da.

2. Titular horreek egin daben taldekatzea Nekazaritza Sailari jakinarazoko deutsie.

### 82. artikulua.- Nahitaezko taldekatzeak

Taldekatzeak nahitaezkoak izango dira Nekazaritzako foru diputatuak proposaturik, herri interesaren eskabidez, Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak halan erabagiten dauanean. Aurretiaz Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak tramitatuko dauan bidezko administrazinoaren espedientea hasi beharko da eta horren barruan derrigorrezkoa izango da ikututen diran alderdiek adierazoten dabena kontutan hartzea.

### 83. artikulua.- Lurzatien baterakuntzak

1. Eskualde baten barruan kokatuta dagozan mendi eta basoen kudeaketea hobetzeko jabetzaren erregimen juridikoa aldatzea beharrezkoa danean, Nekazaritza Sailak lurzatien baterakuntzari ekin ahal izango deutso. Dalako baterakuntza hau alor horren ganean indarrean dagoan legeriagaz bat burutuko da.

2. Lurzatien baterakuntzarako proiektu guztietan jagon beharko diran landare-unitateak zehaztu beharko dira. Balio ekologikoa kontutan hartuta berezitzat jo diran berro-hesiak ezin ahal izango dira ebagi.

VI. KAPITULUA

## BIZKAIKO MENDIEN BATZORDEA

### 84. artikulua.- Bizkaiko Mendien Batzordea

1. Bizkaiko Mendien Batzordea eratzen da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren jardute sail laguntzaile izaerea izango dauana.

2. La Comisión de Montes de Bizkaia estará presidida por el Diputado Foral titular del Departamento de Agricultura, y formarán parte de ella el Director General de Montes y Espacios Naturales, el Jefe del Servicio de Montes, un representante del Departamento de Medio Ambiente y Acción Territorial, designado por dicho Departamento, tres Alcaldes designados por los demás del Territorio Histórico de Bizkaia cuyos ayuntamientos posean montes de Utilidad Pública o, en su defecto, por el Diputado Foral de Agricultura, previa audiencia a los Ayuntamientos señalados.

2. Bizkaiko Mendien Batzordeburu Nekazaritzako Foru Alduna izango da eta Batzordekide izango dira Mendi eta Naturguneen Zuzendari Nagusia, Mendi Zerbitzuburua eta Ingurugiro eta Lurralde Ekintzapiderako Sailak izendatutako Ordezkari bat, Herri Onurako mendiak daukiezan Jatorrizko Bizkai Lurraldeko udaletako alkateek izendatutako, edo bestela Nekazaritzako Foru Aldunak, udaloi entzun ostean, izendatutako hiru alkate.

3. La Comisión de Montes de Bizkaia ostentará, sin perjuicio de otras funciones que se le puedan encomendar reglamentariamente, las competencias siguientes:

a) Conocer e informar el plan de mejoras que anualmente redactará el Servicio de Montes y que será aprobado por el Departamento de Agricultura.

b) Aprobación anual de las cuentas justificativas de los trabajos e inversiones realizados en el Fondo de Mejoras.

c) Estudiar los planes generales de actuación forestal y las líneas generales de la política forestal del Territorio en los montes de utilidad pública.

d) Informar sobre los planes de aprovechamientos que con carácter complementario y de manera urgente sean redactados por el Servicio de Montes, en caso de graves oscilaciones de precios o daños imprevistos, y que varíen los plantes anteriormente aprobados.

e) Reunir y estudiar información sobre incendios forestales y sus causas, sugiriendo medidas para su prevención y extinción.

f) Conocer e informar sobre la Memoria Anual relativa al cumplimiento de las previsiones del Plan Forestal Vasco en la parte que afecte a Bizkaia.

3. Bizkaiko Mendien Batzordeak, arauz egotzi leikiozan beste betebehar batzuetarako eragozpen barik, hurrengo egitekook izango ditu:

a) Mendi Zerbitzuak urtero idatzi eta Nekazaritza Sailak onartuko dauan hobakuntza-egitamuaren barri izan eta egitamu horri buruzko barriak emotea.

b) Hobakuntza Fondoan egindako lan eta diruezarpenen zuritutako kontuak urtero onartzea.

c) Herri Onurako mendietarako basogintzarako ekintzapide egitamu nagusiak eta Lurraldearen basogintza erizpide nagusiak aztertzea.

d) Prezio aldaketa larriak edo ezusteko kalteak gertatu eta aurrean zehaztutako egitamuak aldatuerazo daitezanean izaera osagarriz eta preminabidez Mendien Zerbitzuak atondu dagiazan aprobetxamendu egitamuen barri emotea.

e) Basoetako suteak eta su eragileak dirala-ta informazinoa batu eta aztertzea, suterik egon ez daiten eta dogozanean amatatzeko neurriak hartuaz.

f) Bizkaiari jagokonean Euskal Basogintzarako Planaren aurrikuspenak beteteari buruzko Urteroko Txostenaren barri izatea eta Txosten horri buruzko barriak emotea.

4. La Comisión de Montes podrá recabar cuanta información estime necesaria en orden a procurar una adecuada fundamentación de sus decisiones así como solicitar la presencia de representantes de las Corporaciones Locales, Instituciones, Asociaciones, Sindicatos y Otras Entidades vinculadas con las materias de competencia de la Comisión, cuando sea conveniente, teniendo en cuenta la índole de los asuntos a tratar.

4. Mendien Batzordeak beharrezko deritxon argipide guztiak eskatu leikez, hartu behar dituan erabagiak ahalik eta erarik egokienenan hartzeko. Era berean Batzordearen aginpidepeko gaiekaz zerikusia dauken Toki Erakunde, Iraskunde, Sindikatu eta beste Erakunde batzuk bertaratzea eskatu leike landu baharreko gaia dala-ta halan eritxi ezkero.

# TÍTULO IV
# RECUPERACION DE LOS MONTES Y AREAS FORESTALES

## CAPÍTULO I
## REPOBLACIONES Y MEJORAS

### SECCIÓN 1ª
### REPOBLACIONES

### Artículo 85.- Competencia

1. La repoblación forestal de los montes o áreas forestales corresponderá a los titulares de las mismas, bajo la supervisión técnica e inspección por parte del Departamento de Agricultura, con sujeción a lo que en cada caso se establezca por dicha Administración en defensa de los suelos, la diversidad de la flora y fauna autóctona, y la conservación de los recursos hídricos.

2. El Departamento de Agricultura velará por la correcta ejecución de las repoblaciones, y tanto en la elaboración de los planes o proyectos como en la supervisión e inspección a la que se refiere el apartado anterior, podrá fijar las condiciones técnicas que estime adecuadas, las cuales serán de obligado cumplimiento.

### Artículo 86.- Repoblación en montes de utilidad pública y protectores

1. La repoblación forestal en montes de utilidad pública y protectores se orientará, preferentemente, a la creación de bosques originarios con capacidad de regeneración, posibilitándose la conservación y mejora de las condiciones que determinaron su clasificación.

2. Los planes o proyectos técnicos a los que deberán sujetarse las repoblaciones forestales de los montes a los que se hace referencia en el apartado anterior, serán aprobados por el Departamento de Agricultura, previa consulta al titular del monte. La aprobación de tales planes o proyectos llevará implícita la pertinente autorización.

### Artículo 87.- Repoblación de montes no catalogados y particulares no protectores

1. La repoblación de los montes públicos no catalogados y los particulares no declarados protectores requerirá la previa autorización de la Dirección General de Montes y Espacios Naturales. A tal efecto, los promotores de repoblación deberán adjuntar con la solicitud la documentación pertinente sobre el impacto ambiental, información sobre las características y extensión de la operación a realizar, así como de los medios o instrumentos con los que se pretende ejecutar.

# IV. TITULUA
# MENDI ETA BASOEN LEHENGORATZEA

## Igo. KAPITULUA
## BIRLANDAKETA ETA HOBEKUNTZAK

### 1go. ATALA
### BIRLANDAKETAK

### 85. artikulua.- Eskuduntza

1. Mendi edo basoak birlandatzea hareen titularrei jagoke, beti be Nekazaritza Sailaren gainikuspen edo behaketearen pean, eta lurren babesa, bertoko landare eta animalien aniztasuna eta ur-baliabideen artapenaren arloetan administrazino horrek kasu bakotxean ezarten dauanari lotuta.

2. Nekazaritza Sailak birlandaketen burutzapen egokia jagongo dau, eta bai planen edo egitasmoen gertuketetan eta bai arestiko puntuan aitatzen diran gainikuspen eta behaketetan bidezkotzat joten dauzan baldintza teknikoak ezarri ahal izango dauz. Baldintzok betetea derrigorrezkoa izango da.

### 86. artikulua.- Herri onurako mendi eta babesleetako birlandaketak

1. Herri onurako mendien eta mendi babesleak birlandatzearen helbururik behinena barriro sortzeko gaitasuna dauken bertoko berezko basoak sortzea da; birlandaketeak aurreko sailkapen horretan sartzeko arrazoi diran ezaugarriak zaindu eta hobetu beharko dauz.

2. Nekazaritza Sailak arestiko puntuan aitatu diran mendietan egiten diran birlandaketak lotu beharko jakezan plan edo egitasmo teknikoak onetsiko ditu, mendiaren jabeari entzun ondoren. Plan edo egitasmo horreek onesteak baimen egokiaren beharra ekarriko dau beragaz.

### 87. artikulua.- Katalogatu bako eta babesle ez diran norbanakoen mendietako birlandaketak

1. Katalogatu bako herri mendi eta babesle ez diran norbanakoen mendietan birlandaketak egiteko, aurretik Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiaren aurretiazko baimena beharko da. Horretarako, birlandaketearen zuzpertzaileek eskabideagaz batera ingurugiroaganako eraginari buruzko agiri egokiak, egingo dan eragiketearen ezaugarri eta zabalereari buruzko informazinoa be emon beharko dabez, bai ta lan burutzapen horri ekiteko beharko diran baliabideei buruzko informazinoa be.

2. Transcurrido un mes desde la presentación de la solicitud con la documentación pertinente, o desde que ésta se haya completado en el supuesto de que por la Dirección General se hubiera solicitado la ampliación de la misma, se entenderá concedida la autorización si durante dicho plazo no se hubiera emitido resolución alguna al respecto por la citada Administración.

2. Eskabidea eta agiri egokiak aurkezten diranetik edota, Zuzendaritza Nagusiak eskabide hori zabaltzea eskatu dauala eta, agiriok osotu diranetik hilabete bat igaro ondoren, epe horren barruan aitatu dogun administrazino horrek gaiari buruz ebazpenik emoten ez badau, baimen hori emon dala ulertuko da.

## Artículo 88.- Colaboración administrativa

La Diputación Foral podrá colaborar en la repoblación de montes o áreas forestales, catalogados o no, mediante ayuda técnica, anticipos o subvenciones a las Administraciones, Entidades o particulares, en las condiciones que por ella se determinen, atendiendo en cada caso a la entidad de la repoblación que se trate de ejecutar, así como participar en cuantos convenios se estimen pertinentes en orden a favorecer tales actividades.

## 88. artikulua.- Administrazinoagaz lankidetza

Katalogatuko edo katalogatu bako mendien edo basoen birlandaketetan laguntzeko ahalmena dauka Foru Aldundiak; horretarako, administrazinoei, erakundeei edo norbanakoei Aldundiak berak ezarten dauzan baldintzen arabera, laguntza teknikoa, aurrerakinak edo dirulaguntzak emongo ditu; kasu bakotxean burutzen dan birlandaketearen ardura daukan erakundeari jaramon egingo deutso. Jarduera guzti horreek zuzpertzeko bidezko lankidetza hitzarmenak bultzatzeko ahalamena be eukiko dau.

## Artículo 89.- Repoblaciones obligatorias

1. El Consejo de Gobierno, a propuesta del Diputado Foral de Agricultura, podrá declarar la utilidad pública de la repoblación forestal en un monte o área forestal determinada.

2. A tal efecto, por la Dirección General de Montes y Espacios Naturales se incoará el oportuno expediente administrativo en el que además de justificarse debidamente la necesidad de efectuar la repoblación forestal, se deberá elaborar el presupuesto aproximado de su ejecución e indicar el plazo para llevarla a cabo.

3. La Dirección General de Montes y Espacios Naturales acordará la apertura de información pública por un período de quince días a partir de la publicación del anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», para que los titulares interesados, a la vista del expediente incoado, formulen cuantas alegaciones estimen oportunas. Cuando fuera conocido el domicilio de los interesados la notificación se realizará personalmente.

4. La declaración a la que se hace referencia en el punto 1 del presente artículo, implicará la obligación de realizar la repoblación forestal por parte del titular o titulares de los terrenos afectados de acuerdo con los planes, condiciones y plazos señalados.

5. En caso de incumplimiento de la obligación de repoblar, el Departamento de Agricultura podrá acordar la realización directa de la repoblación a costa del titular o de los aprovechamientos forestales de los que éste sea propietario, o iniciar expediente de expropiación forzosa.

## 89. artikulua.- Nahitaezko birlandaketak

1. Nekazaritza Sailaren foru diputatuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak mendi edo baso zehatz baten birlandaketearen herri onurakotasuna adierazo ahala izango dau.

2. Horretarako, Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak administrazino egokiaren espedientea hasiko dau; espediente horren barruan birlandatu beharra behar da modura bidezkotu ezeze, burutzapenaren gitxi gorabeherako aurrekontua eta amaitzeko beharko dan epea be azaldu beharko dauz.

3. Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiak jendaurreko informazinorako honako iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dan egunean zenbatzen hasi eta hamabost eguneko epea zabaltzea erabagiko dau, holan interesatuta dagozan titularrek, hasitako espedientea ikusirik, bidezkotzat joten dabezan alegazino guztiak aurkezteko aukerea izan daien. Interesatuen helbidea, ezaguna bada, jakinarazpen hori zuzenean burutuko da.

4. Honako artikulu honen 1go. zenbakian aitatu dan adierazpenak ikutzen diran lurraldeen titularraren edo titularren birlandaketea derrigorrrez egiteko erakarriko dau, beti be ezarri diran planak, baldintzak eta epeak beteta.

5. Birlandaketea derrigorrez egin behar horri uko egin ezkero, Nekazaritza Sailak zuzenean birlandaketea egiteko erabagia hartu ahal izango dau; lan honeek titularraren edo horrek daukazan baso aprobetxamenduen pentsura egingo dira. Bestalde, Nekazaritza Sailak derrigorrezko desjabetzapenaren espedientea be hasi ahal izango dau.

SECCIÓN 2ª
**MEJORAS**

### Artículo 90.- Plan de mejoras

1. En todo monte catalogado o protector será obligatorio un plan de mejoras. Los titulares de montes de utilidad pública o protectores estarán obligados al cumplimiento de lo dispuesto en el plan de mejoras que para el monte de que se trate establezca el Departamento de Agricultura al autorizar los aprovechamientos.

2. El importe de la inversión prevista en el plan de mejoras en ningún caso será inferior al quince por ciento del valor de los aprovechamientos, pudiendo ser incrementado dicho porcentaje cuando a juicio del Departamento de Agricultura, el cual deberá motivar tal circunstancia al aprobar el correspondiente plan, así lo aconsejen razones de orden técnico, social o económico.

3. En los supuestos de incumplimiento de lo señalado en el plan de mejoras, el Departamento de Agricultura podrá aplazar hasta que por los titulares de los montes no se hayan ejecutado las mejoras pendientes, la autorización de nuevos aprovechamientos forestales.

4. El fondo de mejoras que se constituya podrá invertirse y administrarse conjuntamente para todos los montes de un mismo titular.

### Artículo 91.- Promoción de las mejoras forestales

1. La Diputación Foral podrá conceder, en la cuantía y forma que reglamentariamente se determine, ayuda técnica, anticipos y subvenciones a los titulares de los montes, sean públicos o de particulares, así como concertar cuantos convenios estime pertinente en orden a lograr el propósito enunciado.

2. El Departamento de Agricultura podrá en los montes de utilidad pública y protectores, previo acuerdo con el titular, efectuar cuantas inversiones sean pertinentes, con cargo a sus presupuestos en materia de mantenimiento, inversiones y mejoras.

### Artículo 92.- Otras mejoras

El Departamento de Agricultura promocionará, asimismo, la implantación de arbolado junto a los caminos, regatas, setos de separación y otras zonas que permitan incrementar la riqueza ecológica del medio rural.

2. ATALA
**HOBEKUNTZAK**

### 90. artikulua.- Hobekuntzak egiteko plana

1. Edozein mendi katalogatu edo babeslean derrigorrezkoa izango da hobekuntzak egiteko plana izatea. Herri onurako edo mendi babesleen titularrek Nekazaritza Sailak aprobetxamenduari ekiteko baimena emoten dauanean ezarten dauan hobekuntza planean adierazoten dana bete beharko dabe.

2. Hobekuntza planean aurrikusten dan inbertsinoaren zenbatekoa ez da inoiz aprobetxamenduen balioaren ehuneko hamabostetik beherakoa izango; Nekazaritza Sailak, halan uste dauanean, portzentaia hori igon ahal izango dau, baina horretarako plan berezia bultzatuko daben arrazoi teknikoek, gizartekoek edo ekonomikoek egon beharko dabe.

3. Hobekuntza planak dinoana beteten ez bada, Nekazaritza Sailak baso-aprobetxamendu barrien baimena geroratu ahal izango dau, harik eta mendi horreen titularrek bete barik geratu diran hobekuntzak burutu arte.

4. Eratzen dan hobekuntza-fondoa dana batera inbertitu eta administratu ahal izango da titular baten mendi guztietarako.

### 91. artikulua.- Basoko hobekuntzen sustapena

1. Foru Aldundiak herrikoak zein basokoak izan daitekezan mendien titularrentzat laguntza teknikoa, aurrerakinak eta dirulaguntzak emon ahal izango dauz, arau bidez zehaztuko dan zenbatekoan eta eran; aitatu dan helburua lortzeko bidezkotzat joten dauzan hitzarmen guztiak be ituntzeko ahalmena eukiko dau.

2. Nekazaritza Sailak bidezkotzat joten dauzan inbertsinoak burutu ahal izango dauz herri onurako eta mendi babesleetan; horretarako, titularragaz akordio batera heldu beharko dau aurretiaz, eta dirulaguntza horreek mantenimendu, inbertsino eta hobekuntzetarako daukan aurrekontuen pentsura izango dira.

### 92. artikulua.- Bestelako hobekuntzak

Era berean, Nekazaritza Sailak bide bazter, erreka albo, bular-hesi eta landa-eremuan aberastasun ekologikoa sortu daikien beste sail batzuetan arbola landareak sartzea sustatuko dau.

CAPÍTULO II

## PLAGAS Y ENFERMEDADES FORESTALES

### Artículo 93.- Regla general

1. Corresponderá al Departamento de Agricultura la vigilancia, prevención, localización y estudio de las plagas y enfermedades de los montes, semillas y viveros forestales, cualquiera que sea la titularidad de los terrenos y sus productos, así como la prestación de asesoramiento y ayuda técnica para su tratamiento.

2. La Diputación Foral, en la forma que reglamentariamente se determine, podrá formalizar convenios con los titulares públicos o privados de los montes o áreas forestales para la ejecución de trabajos de prevención y extinción de plagas o enfermedades forestales.

3. Cuando la iniciativa de la realización de los trabajos a los que se hace referencia en el apartado anterior partiera de los titulares afectados, la Diputación Foral podrá prestar ayuda técnica u otorgar subvenciones o anticipos en las condiciones que por ella se determinen, entre las que se hallará la de someterse a las prescripciones de los servicios técnicos en orden a procurar mayor eficacia en los tratamientos.

### Artículo 94.- Obligación de notificar la existencia de enfermedades forestales

Los titulares de montes, áreas forestales o viveros afectados por plagas o enfermedades, están obligados a dar cuenta de su existencia al Departamento de Agricultura, sin perjuicio del deber general que recae sobre todo persona de poner en conocimiento de dicha Administración la existencia de las enfermedades de las que por cualquier circunstancia tuviera conocimiento.

### Artículo 95.- Declaración de la existencia de plagas o enfermedades

1. La Diputación Foral podrá declarar la utilidad pública y tratamiento obligatorio en la lucha contra una plaga o enfermedad forestal. En dicha declaración deberá delimitarse la zona o zonas afectadas, así como aquellas otras que aun no estándolo su tratamiento fuera necesario en orden a garantizar la eficacia de las medidas adoptadas.

2. Los propietarios de los terrenos afectados por la declaración habrán de efectuar, con carácter obligatorio y en la forma y plazos indicados por la Diputación Foral, los trabajos de prevención y extinción correspondientes, pudiendo acogerse para ello al régimen de ayudas que, en su caso, se haya aprobado por la citada Administración.

II. KAPITULUA

## BASOKO IZURRITE ETA GATXAK

### 93. artikulua.- Arau orokorra

1. Baso, hazi eta baso-hazlekuetan izan leitekezan izurrite edo gatxen zaintza, aurrearretea, kokaera ta ikerketea Nekazaritza Sailaren betebeharra izango dira, edozein dirala ekoizten diran gaiak eta lursailen titularra. Tratamendurako beharrezkoa dan aholkularitza eta laguntza teknikoa be Nekazaritza Sailaren esku egongo da.

2. Arau bidez zehazten dan legez, Nekazaritza Sailak hitzarmenak egin ahal izango dauz mendi edo basoen titular publiko zein pribatuakaz, aurrearretazko lanei ekiteko edo basoko izurriteak eta gatxak akatzeko.

3. Arestiko puntuan aitatu diran lanen burutzapenaren ekimena ikututa dagozan titularrena danean, Foru Aldundiak laguntza teknikoa edota dirulaguntzak eta aurrerakinak emon daikez, berak ezarten dauzan baldintzen arabera; baldintza horreen barruan, behinena tratamenduen eraginkortasuna ahalik eta onena izatea da, eta horretarako funtsezkoa izango da zerbitzu teknikoen preskripzinoak betetea.

### 94. artikulua.- Basoan gatxak dagozala ohartuarazo beharra

Izurrite edo gatxek jota dagozan mendi, baso edo hazlekuen titularrek horren barri emon beharko deutsoe Nekazaritza Sailari, beti be inguruabarrak edozelangoak izanda jakinaren ganean dagoan edozein gizakumek dalako administrazino horri dagozan gaisotasunen barri emoteko daukan berezko betebeharraren kalte barik.

### 95. artikulua.- Izurrite eta gatxak dagozala adierazotea

1. Basoko izurrite edo gatx baten kontra jarduteko, Foru Aldundiak herri onurakotasuna eta tratamendua derrigorrezko dala adierazo ahal izango dau. Adierazpen horrek lehenengo eta behin kalteak egin jakozan inguru edo inguruak zeintzuk diran esan beharko du, bai eta, oraindik kalterik jaso barik egon arren, hartzen diran neurrien eraginkortasunerako tratamendua jaso beharko leukien ganerako inguruak be.

2. Adierazpenak ikutzen dituan lurren jabeek eurei jagokezan aurrearreta eta akatzeko lanak burutu beharko dabez, derrigorrez eta Foru Aldundiak zehazten dauzan era eta epeetan; hau guztia egin ahal izateko, jabeek aitatu dogun administrazinoak onesten dauan laguntza-erregimenari heltzeko ahalmena eukiko dabe.

3. En el caso de que no se realizaren los trabajos en la forma y plazos establecidos podrá el Departamento de Agricultura ejecutarlos por cuenta de los titulares de los terrenos afectados.

3. Lanok ezarritako era eta epeetan egiten ez badira, Nekazaritza Sailak burutu ahal izango ditu kalteak egiten jakezan lursailen titularren pentsutan.

### Artículo 96.- Actuaciones especiales o urgentes

1. En los casos de urgencia, el Departamento de Agricultura podrá actuar sin esperar a la declaración de plaga o enfermedad forestal en todos los montes, cualquiera que sea su propietario.

2. Cuando sea necesario o imprescindible destruir los elementos afectados mediante corta o quema, ésta podrá realizarse por el Departamento de Agricultura incluso sin autorización del titular, sin que ello, en principio, sea motivo de indemnización. En todo caso, se levantará acta de las actuaciones realizadas en presencia del propietario o titular del terreno, indicándose las causas de las medidas adoptadas y la cantidad de los elementos afectados.

### 96. artikulua.- Jarduketa bereziak edo presazkoak

1. Presazko kasuetan, Nekazaritza Sailak baso izurrite edo gatxaren adierazpenari itxaron barik jarduteko ahalmena eukiko dau; ahalmen hori edozein menditan aplikatu ahal izango dau, jabea edozein dala be.

2. Beste konponbiderik ez dagoanean eta kalteak egiten jakezan elementuak ebagiz edo euroi su emonez ezabatzea derrigorrezkoa danean, lan hau, titularraren baimena euki ez arren, Nekazaritza Sailak berak egin ahal izango dau. Jarduketa horrek, beste barik, ez dau kalteordainik jasotea eragingo. Edozelan be, lurraren jabe edo titularraren aurrean burututzen diran jarduketen aktea egingo da, eta hartu diran neurrien arrazoiak eta kalteak egin jakezan elementuen kopurua erasoko da akta horretan.

### Artículo 97.- Intervención administrativa

Los tratamientos de los montes con plaguicidas cuando afecten a superficies superiores a setenta y cinco hectáreas, así como el uso de herbicidas en superficies continuas para aplicaciones forestales, requerirán la autorización previa del Departamento de Agricultura, que se entenderá denegada si en el plazo de 30 días desde la presentación de la solicitud no recayera resolución expresa.

### 97. artikulua.- Administrazinoaren eskuhartzea

Basoak zomorro-hilkariz tratatzen badira, tratamendua hirurogeita bost hektareakoa baino handiagoa dan azaleran egiten danean, aurretik Nekazaritza Sailaren baimena euki beharko da, eta gauza bera jazoko da basoko aplikazinoetarako lursail zabaletan bedar-hilkaria erabilten danean be. Baimena ukatutzat joko da eskabidea egin eta 30 egun garrenean beren beregiko erabagirik hartu ez bada.

## CAPÍTULO III
## INCENDIOS FORESTALES

### Artículo 98.- Funciones del Departamento de Agricultura

Las acciones del Departamento de Agricultura en esta materia, estarán dirigidas a la prevención, detección y colaboración en la extinción de los incendios forestales, la protección de las personas y bienes en ellos implicados, la sanción de las infracciones que se cometan y la adopción de medidas restauradoras de los terrenos afectados.

## III. KAPITULUA
## BASOKO SUTEAK

### 98. artikulua.- Nekazaritza Sailaren funtzinoak

Arlo honetan Nekazaritza Sailak egiten dituan ekintza guztiek ondoko xede honeek eukiko dabez: basoko suteak aurrikusi eta sumatzea, suteok amatateko alkarlanean jardutea, horreek ikutzen dabezan pertsonak eta ondasunak babestea, egin daitekezan urratzeak zehatzea eta erreten diran lurrak lehengoratzeko neurri egokiak hartzea.

### Artículo 99.- Adopción de medidas de prevención y defensa

1. El Departamento de Agricultura, con el propósito de ordenar las medidas de prevención y defensa contra el riesgo de incendio en los montes y áreas forestales, podrá exigir a los propietarios de los mismos la apertura y conservación de cortafuegos, así como la realización de cuantos otros trabajos preventivos se estimen necesarios. La realización de dichos trabajos tendrán la consideración de mejoras.

2. Igualmente, las empresas explotadoras de redes eléctricas estarán obligadas a mantener la superficie situada debajo de las líneas libre de vegetación arbórea. En los supuestos en los que deban crearse nuevas líneas, el Departamento de Agricultura podrá indicar el trazado de éstas a incluso prohibir que discurra por el monte de que se trate cuando las medidas de protección así lo requieran.

### 99. artikulua.- Aurrearreta eta babeserako neurriak hartzea

1. Nekazaritza Sailak, mendi eta basoetan suteak biztuteko arriskuaren aurkako aurrearreta eta babeserako neurriak hartzeko aginduak emoteko asmoaz, mendi edo basoon jabeei suebagiak egin eta artatzeko eskatu ahal izango deutse, eta bai aurrearretarako beharrezkotzat joten diran lan guztiak egiteko be. Aitatu diran lanon burutzapen horreek hobekuntzatzat hartuko dira.

2. Era berean, elektrizitate-sareak ustiatzen dabezan enpresek arbola barik mantendu beharko dabe lineen azpiko lur-azalerea. Linea barriak egin behar diranean, Nekazaritza Sailak linea horreen nondik-norakoa zehaztu ahal izango dau, eta bai mendian eregitea galarazo be, babes neurriek halan jardutea eskatu ezkero behinik behin.

### Artículo 100.- Control de deficiencias infraestructurales

La Diputación Foral a propuesta del Departamento de Agricultura elaborará un Plan sobre el estado de los caminos, pistas y accesos a los montes y áreas forestales, al objeto de evitar la existencia de zonas carentes de infraestructuras que permitan el acceso de vehículos en los casos de incendio. La aprobación del Plan implicará la declaración de utilidad pública de las infraestructuras y la necesidad de ocupar los terrenos o parcelas correspondientes a los fines de expropiación o imposición de servidumbres.

### 100. artikulua.- Azpiegitura-akatsen kontrola

Nekazaritza Sailak proposatuz, Foru Aldundiak mendi eta basoko bideen egoerearen ganeko plana gertutuko dau, halan azpiegitura egokirik bako zonalderik egon ez daiten eta sute kasuetan ibilgailuak eroso eta arazo barik joan ahal izan daitezan mendi edo basoetara. Plan hori onesteak azpiegiturak herri onurakoak dirala adierazotea eragingo dau, eta bai besterenganaketei edo zortasunezarketei jagokezan lur edo lursailak atzeman beharra be.

### Artículo 101.- Inmodificabilidad del uso de los terrenos incendiados[1]

1. El uso de los montes o áreas forestales incendiados, no podrá modificarse durante al menos 30 años, debiendo ser restaurada la cubierta vegetal afectada, bien a través de la regeneración natural de los terrenos, bien mediante la reforestación artificial cuando aquella no fuera viable.

2. Corresponde al Departamento de Agricultura adoptar las medidas tendentes a restaurar las parcelas incendiadas, las cuales serán de obligado cumplimiento para los propietarios de las mismas. Tales medidas incluirán la prohibición de toda actividad incompatible con la regeneración de la cubierta vegetal, en particular el pastoreo, durante un periodo mínimo de tres años y podrán consistir, además en repoblar la superficie quemada.

### 101. artikulua.- Suteak harrapaturiko lursailen erabilera aldatzeko ezintasuna[2]

1. Suteak harrapaturiko mendi edo basoen erabilera ezingo da aldatu 30 urteko epean gutxienez, eta kalteturiko landare-estaldura lehengora itzuli beharko da, bai lursailen birsorkuntza naturalaren bidez, bai baso-berritze artifizialaren bidez, lehenengo aukera posible ez denean.

2. Nekazaritza Sailari dagokio neurriak hartzea suteak harrapaturiko partzelak lehengoratzeko. Sailak hartutako neurriak betetzea derrigorrezkoa izango da jabeentzat. Adierazitako neurriek landare estalduraren birsorkuntzarekin bateragarria ez den jarduera guztien debekua ekarriko dute, bereziki, artzaintza. Debekua hiru urterako izango da gutxienez eta, horrekin batera, erretako azalera lehengoratzeko neurriak ere hartu ahal izango dira.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*

[2] *2007/3. Foru- Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

### Artículo 102.- Deber de alertar a la autoridad en caso de incendio

Toda persona que advierta la existencia de un incendio en un monte o área forestal, deberá poner en conocimiento de la autoridad o sus agentes la existencia del siniestro con la máxima urgencia.

### Artículo 103.- Quema de pastos, restos y rastrojeras

1. La quema de especies leñosas y herbáceas en los montes, tanto si tienen por objeto la mejora de los pastos como la eliminación de restos de árboles o malezas, deberá contar preceptivamente con autorización del Departamento de Agricultura.

2. Del mismo modo, también será necesaria autorización administrativa para las quemas en terrenos situados a menos de 200 metros de los montes y en los enclaves de los mismos.

3. Las quemas de pastos no autorizadas podrán implicar la prohibición del pastoreo en la superficie incendiada por un período de uno a diez años, plazo que será determinado por el Departamento de Agricultura en función de las características del terreno y de las especies que lo poblaban.

## CAPÍTULO IV[1]
## DE LAS DISTANCIAS FORESTALES

### Artículo 104.- Licencia Administrativa

1. Los titulares de terrenos forestales próximos a edificaciones destinadas a vivienda o colindantes con terrenos destinados a praderas o pastizales, caminos, cultivos y frutales, deberán respetar las distancias a la que hace referencia en el artículo siguiente. Todo ello sin perjuicio del cumplimiento de cuantos otros requisitos se recogen en la presente Norma Foral.

2. Las viviendas construidas con posterioridad a las plantaciones forestales no podrán exigir el respeto y guarda de tales distancias ni siquiera cuando, una vez talado el monte, se proceda a su repoblación.

3. Tampoco deberá guardarse distancia forestal alguna respecto de las edificaciones destinadas a guarda de aperos de labranza y, en general, de conformidad con lo dispuesto en el apartado primero de este artículo, de cualquier construcción cuyo destino no sea el residencial.

### 102. artikulua.- Agintariei sutea dagoala ohartuarazo beharra

Mendi edo basoren batean sutea dagoala sumatzen dauan edozein pertsonak ahalik eta arinen jakinarazo behar deutse ezbehar hori agintariei edo hareen agenteei.

### 103. artikulua.- Bedar, sastraka eta suskurren erreturak

1. Mendi-basoetan zur- eta bedar-espezieak erre aurretik, Nekazaritza Sailaren manuzko baimena euki beharko da, helburua larreak hobetzea izan zein landak arbola-hondakinez edo sastrakaz garbitzea izan.

2. Era berean, administrazinoaren baimena euki beharko da mendi-basoetatik 200 metrotara baino hurrago dagozan lurretan eta hareetako barrendegietan erreturak egiteko be.

3. Erreturak baimen barik egin ezkero, erreten dan lur-eremuan urte betetik hamar urtera doan epealdian galarazo ahal izango da artzaintza; edozelan be, epe hori Nekazaritza Sailak zehaztuko dau, lurraren eta bertako espezieen ezaugarriak aztertu ostean.

## IV. KAPITULUA[2]
## BASOKO DISTANTZIAK

### 104. artikulua.- Administrazio Lizentzia

1. Etxebizitzetako eraikinetatik gertu dauden edo zelai edo larreetarako, bideetarako, laboreetarako eta fruta-arboletarako gordetako lursailen mugakide diren baso lursailen titularrek hurrengo artikuluak zehazten dituen distantziak errespetatu beharko dituzte. Hori guztia foru arau honetan bildutako beste edozein irizpide bete behar izatearen kaltetan izan gabe.

2. Baso landaketak egin eta gero eraikitako etxebizitzek ezingo dute distantzia horien errespetua eta zaintza exijitu, ezta behin mendia moztuta, basoa berritzerakoan ere.

3. Halaber, ez da baso distantzia gordetzeko beharrik izango nekazaritzarako tresnak gordetzeko eraikuntzen kasuan eta, orokorrean, egoitza erabilera ez duen beste edozein eraikuntzaren kasuan, artikulu honetako lehenengo atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*

[2] *2007/3. Foru- Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

4. No se considerarán afectadas por la presente Norma Foral las plantaciones que constituyan alineaciones simples y las que cumplan una función ornamental, siempre que sean pies aislados. Perderán esta condición las alineaciones en las que con posterioridad se plante en el resto del terreno, contándose los plazos establecidos desde la última plantación realizada.

Tampoco se aplicarán las distancias establecidas en esta Norma Foral a los terrenos forestales colindantes con aquellos para los que se haya autorizado un cambio de uso forestal.

5. Las ocupaciones temporales en montes de utilidad pública se regulan por lo establecido en los artículos 54 y siguientes de esta Norma Foral, así como por las cláusulas Técnico-jurídicas aprobadas para el Departamento de Agricultura y la Entidad Titular del monte, no siéndoles de aplicación, en consecuencia el régimen de distancias establecido en este Capítulo.

En el caso de que concedan ocupaciones de terrenos para plantación forestal y para praderas o pastizales y cultivos entremezclados entré si, de no establecerse determinación al respecto en las cláusulas Técnico-jurídicas rectoras de la ocupación, se aplicará una distancia de cinco metros desde la plantación forestal al límite del terreno.

## Artículo 105.- Distancias forestales mínimas

1. Consecuencia de la necesaria compatibilización de las explotaciones forestales y agroganaderas, deberán guardarse las distancias a las que se hace referencia en el apartado siguiente, siempre que se trate de parcelas que dedicándose a tales actividades colinden entre sí. Asimismo, respecto de las viviendas a que se refiere el artículo 104, se guardarán las distancias que se establecen en el apartado 2.a).

2. Las distancias mínimas que deberán respetarse por las plantaciones forestales serán, salvo acuerdo de los titulares respectivos, las siguientes:

a) Respecto de edificaciones preexistentes cuyo destino sea el de vivienda, sea o no de carácter temporal, la distancia será, al menos, una vez y media la altura media a la edad de la corta de la especie mayoritaria a la que pertenezca la plantación realizada, contados desde la proyección del alero

b) La distancia de las plantaciones forestales a los pastizales, praderas, frutales y cultivos, será un tercio de la altura media a la edad de la corta de la especie mayoritaria plantada, a contar desde el lindero común.

c) Respecto de los caminos y vías pecuarias públicas, la distancia de las plantaciones a la arista exterior del firme de tales vías será de tres metros.

4. Lerrokadura sinpleak eratzen dituzten landaketak eta apaintzeko xedea dutenak ez dira foru arau honen eraginpean egongo, betiere, orpo isolatuak badira. Ezaugarri hori galduko dute gainerako lursailean ondorenean landutako lerrokadurek. Horretarako, eginiko azken landaketatik aurrera ezarritako epeak hartuko dira kontuan.

Halaber, foru arau honetan ezarritako distantziak ez dira aplikatuko baso lursail mugakideetan baso erabileraren aldaketa baimendu bada.

5. Erabilera publikoko mendietako aldi baterako okupazioak foru arau honetako 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera arautzen dira. Halaber, Nekazaritza Sailerako eta mendiaren Erakunde Titularrarentzat onarturiko klausula tekniko eta juridikoak izan beharko dira kontuan. Ondorioz, Kapitulu honetan ezarritako distantzia erregimena ez zaie aplikatuko.

Baso landaketarako eta belaze edo larreetarako eta laboreetarako lursailak –guztiak nahastuta– okupatzea baimentzen bada, bost metroko distantzia aplikatuko da baso landaketatik lursailaren mugaraino, betiere, okupazioa arautzen duten klausula tekniko eta juridikoek aparteko zehaztapenik ezartzen ez badute.

## 105. artikulua.- Gutxieneko baso distantziak

1. Baso, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenak bateratzeko beharraren ondorioz, hurrengo atalean jasotako distantziak gorde beharko dira, betiere, jarduera horietara zuzenduriko partzelak mugakideak direnean. Halaber, 104. artikuluak aipaturiko etxebizitzei dagokienez, 2.a) atalean ezarritako distantziak gordeko dira.

2. Baso landaketek errespetatu beharko dituzten gutxieneko distantziak hurrengoak izango dira, titularrek bestelako akordiorik adostu ezean:

a) Lehendik dauden eraikinei dagokienez, etxebizitzarakoak badira, aldi baterako izan zein ez izan, gutxieneko distantzia jarritako arboladian nagusi den espezieak botatzeko sasoian izango luketen batez besteko altueraren parekoa eta erdi izango da, hegalaren proiekziotik kontatzen hasita.

b) Baso landaketetatik larre, belaze, fruta-arbola eta laboreetarainoko distantzia landaturiko espezie nagusiak botatzeko sasoian izango lukeen batez besteko altueraren herena izango da, muga komunetik kontatzen hasita.

c) Kamio eta abere bide publikoei dagokienez, landaketetatik bide horien lurraren kanpoaldeko ertzerainoko distantzia hiru metrokoa izango da.

d) La distancia mínima entre plantaciones realizadas en parcelas incluidas en la zona forestal será de dos metros, respecto de lindero común.

3. Cuando concurran edificaciones con los demás usos a que se refiere el apartado anterior, se aplicará la distancia correspondiente a aquellas.

### Artículo 106.- Plantaciones indebidas

1. El titular de una vivienda o terreno que se considere perjudicado por una plantación forestal realizada en la finca próxima a una vivienda o colindante con otros tipos de uso con inobservancia de lo dispuesto en el artículo anterior podrá denunciar el hecho en el plazo de seis meses contados a partir de la fecha de la plantación ante el Departamento de Agricultura, solicitando al mismo tiempo la eliminación de lo indebidamente plantado.

2. En este supuesto los titulares de plantaciones que se realicen sin respetar las distancias mínimas, además de incurrir en infracción administrativa, conforme a lo dispuesto en la presente Norma Foral, estarán obligados a ajustar la plantación realizada a la normativa aplicable y, si no fuera posible, a eliminar lo indebidamente efectuado.

## CAPÍTULO V
## EXPERIMENTACION FORESTAL

### Artículo 107.- Finalidad

El Departamento de Agricultura promoverá y coordinará la realización de estudios de genética y reforestación, así como de trabajos silvícolas y aplicaciones tecnológicas conducentes a la mejora de la calidad y productividad de los montes y áreas forestales del Territorio Histórico de Bizkaia, sin perjuicio de las competencias que por disposiciones normativas correspondan a otras Administraciones o Instituciones.

### Artículo 108.- Objetivo

Los programas de investigación se llevarán a cabo preferentemente, en conexión con centros científicos y técnicos, universitarios o societarios, con los siguientes objetivos:

a) Difundir entre los particulares y asociaciones del sector las técnicas de actuación y aplicación práctica en materia forestal.

b) Realizar labores de investigación, análisis, ensayos y demás trabajos experimentales de interés para la mejora de las técnicas forestales.

c) Cualesquiera otros que persigan el fomento y desarrollo de la actividad forestal.

d) Basoaren eremuan sartutako partzeletan eginiko landaketen arteko gutxieneko distantzia bi metrokoa izango da, muga komunetik.

3. Aurreko ataleko gainerako erabilerekin eraikuntzak agertzean, haiei dagozkien distantziak aplikatuko dira.

### 106. artikulua.- Okerreko landaketak

1. Baso landaketa batek etxebizitza edo lursail baten titularrari eragiten diola uste bada, etxebizitza baten gertuko finka batean edo, aurreko artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta, erabilera bateraezineko finka mugakidearen ondoan eginiko landaketa izateagatik, gertakaria salatzeko aukera egongo da landaketa egin zen egunetik hasi eta sei hilabeteko epean. Salaketa Nekazaritza Sailari aurkeztu beharko zaio, eta behar ez bezala landatutakoa kentzeko eskatu.

2. Suposamendu horretan, gutxieneko distantziak errespetatu gabe eta, gainera, arau-hauste administratiboaren bidez eginiko landaketen titularrek eginiko landaketa aplika dakiokeen araudiari egokitzeko betebeharra izango dute, foru arau honek ezarritakoa errespetatuz. Horrelakorik egitea ezinezkoa balitz, okerreko moduan eginikoa deuseztatu beharko litzateke.

## V. KAPITULUA
## BASOARI BURUZKO IKERLANAK

### 107. artikulua.- Xedea

Nekazaritza Sailak genetika eta birlandaketeari buruzko ikerlanak sustatu eta koordinatuko dauz, eta bai Jatorrizko Bizkai Lurraldeko mendi eta basoen kalitatea eta ekoizkortasuna hobetzeko oihangintza-lan eta aplikazino teknologikoei buruzkoak be, bestelako administrazino edo erakundeei, arauetako xedapenak dirala bide, jagokezan eskumenen kalte barik.

### 108. artikulua.- Helburua

Ikerketa-egitarauak zientzia eta teknika, unibertsitate edo sozietate zentroakaz alkarlanean egingo dira, eta ondoko helburuak eukiko dabez:

a) Sektoreko norbanako eta alkarteei basogintzari buruzko jarduketa eta egiterapen-aplikazinoko tekniken barri emotea eta zabaltzea.

b) Basogintza-teknikak hobetzeko ikerketa, analisi, saio eta ganerako esperimentu lanak burutzea.

c) Baso-jarduerea suspertu eta garatzeko egiten diran bestelako helburu guztiak.

# TÍTULO V
# ADMINISTRACION DE ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS

### Artículo 109.- Competencia

1. A la Diputación Foral, en el marco de lo dispuesto en el artículo 7.c).3 de la Ley 27/83, de 25 de noviembre, de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos», le corresponderá la gestión y ejecución de cuantas acciones administrativas fueran necesarias en orden a salvaguardar los valores ecológicos de los espacios naturales protegidos.

2. Cuando un espacio natural protegido se asentara, además de en terrenos pertenecientes al Territorio Histórico de Bizkaia en áreas ubicadas en otros Territorios, la gestión a la que se hace referencia en el apartado anterior deberá sujetarse, entre otros, a los principios de coordinación y cooperación interadministrativa.

### Artículo 110.- Objetivos de la gestión

La gestión de los espacios naturales protegidos, en consonancia con lo que para cada caso se señale por el correspondiente Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, se dirigirá a alcanzar, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley vigente en materia de Conservación de la Naturaleza, los objetivos siguientes:

a) Preservar las especies vegetales y su diversidad, conservando las superficies forestales, fomentando la regeneración de los ecosistemas naturales, en particular, de aquellas especies y masas arboladas autóctonas, promoviendo su recuperación.

b) Preservar la fauna salvaje evitando la introducción de especies extrañas nocivas, así como conservar y recuperar las especies amenazadas.

c) Preservar las aguas continentales y litorales de todo tipo de elementos contaminantes, con el objetivo de mantenerlas en condiciones adecuadas para la conservación de la población animal y vegetal,

d) Fomentar los usos y actividades, en especial las tradicionales, que en el marco de los Planes de Ordenación favorezcan el desarrollo de las distintas zonas y faciliten el mantenimiento de la población rural.

e) Facilitar en los espacios naturales lugares suficientes para la investigación, educación y ocio.

# V. TITULUA
# BABESPEKO NATURGUNEEN ADMINISTRAZINOA

### 109. artikulua.- Eskuduntza

1. Autonomi Alkarteko eta Jatorrizko Lurraldeko Foru Organoen Baterako Erakundeen arteko Hartuemonei buruzko zemendiaren 25eko 27/83 Legearen 7.c).3. artikuluak dinoanaaren arabera, Foru Aldundiari jagoko babespeko naturguneen ekologi balioak zaintzeko behar diran administrazino-egintza guztiak kudeatu eta egiteratzea.

2. Baldin eta babespeko naturguneren bat Jatorrizko Bizkai Lurraldeko lurretan ezeze beste lurralde batzuetakoetan be kokatzen bada, aurreko puntuan aitatu dan kudeaketea administrazinoen arteko koordinazino eta lankidetza printzipioei lotu beharko jake, besteak beste.

### 110. artikulua.- Kudeaketearen helburuak

Babespeko naturguneen kudeaketeak ondoko helburuak izango ditu, natur baliabideen antolamendurako plan egokiak kasuan kasu zehazten dauanagaz bat etorriz eta Naturaren Artapenari buruzko Legeak dinoanaren arabera:

a) Landare-espezieak eta horreen aniztasuna gordetea, baso-lurrak artatuz, berezko eta batez be bertoko espezie eta arboladien ekosistemen birsorpena zuzpertuz eta horreen guztien berreskurapena sustatuz.

b) Baso-animaliak zaintzea, kanpoko espezie kaltegarriak sartzea ekidinez eta galtzeko zorian dagozan espezieak gorde eta sendotuarazoz.

c) Barne-urak eta itsasokoak elementu kutsagarrietatik begiratzea, landareak eta animaliak behar dan moduan artatzeko baldintza egokiak euki daiezan.

d) Eremu guztiak garatzeko eta nekazaritza-biztanleria mantentzeko erabilera eta jarduerak zuzpertzea, batez be jarduera tradizionalak, antolamendurako planakaz bat etorrita.

e) Naturguneen barruan ikerketa, heziketa eta aisiarako nahikoa gune edo toki egon daiten erraztea.

f) Fomentar la formación escolar y ciudadana en las cuestiones relacionadas con la defensa de la naturaleza y medio ambiente.

g) Controlar el impacto producido por la implantación de elementos artificiales, infraestructuras o cualesquiera otra actuación transformadora del medio natural.

h) Mantener la diversidad, singularidad y características de los ecosistemas en general impulsando su restauración.

## Artículo 111.- Organos de gestión

1. La gestión de los espacios naturales protegidos será llevada a cabo por cuantos órganos unipersonales o colectivos del Departamento Foral competente se estimen convenientes a tenor, tanto del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales como del resto de la legislación aplicable en la materia.

2. Para colaborar en la gestión de los espacios naturales protegidos se constituirán cuando proceda, como órganos de participación e integración de intereses concurrentes en la zona, los Patronatos, cuya composición y funciones se determinarán reglamentariamente, de acuerdo con lo establecido en la Ley.

## Artículo 112.- Funciones de los Organos de Gestión

Los órganos de gestión de los espacios naturales tendrán las funciones siguientes:

a) Elaboración del Plan Rector de Uso y Gestión, cuya aprobación definitiva corresponderá al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, previo expediente tramitado al efecto, conforme al procedimiento previsto en la Ley. Dicho plan deberá contener las directrices y criterios de gestión del espacio natural de que se trate, de conformidad con las determinaciones normativas dispuestas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y cuantas otras determinaciones resulten necesarias de acuerdo con las finalidades que motivaron la declaración del espacio protegido.

b) Elaborar anualmente el presupuesto y la propuesta del programa de gestión.

c) Administrar los fondos procedentes de la utilización de los servicios propios y los recursos que pueda recibir del exterior.

d) Velar por el cumplimiento en el espacio natural de las normas generales de protección de la naturaleza establecidas por la normativa aplicable.

f) Eskola eta uritar heziketea sustatzea, naturearen eta ingurugiroaren babesagaz loturik dagozan gaiei jagokenean.

g) Elementu artifizialen, azpiegituren edo ingurugiroa aldatuarazoten dabezan osterantzeko jarduketen ezarketeak eragiten dauzan kalteak kontrolatzea.

h) Orohar, ekosistemen aniztasun, berezitasun eta ezaugarriak gordetea, ekosistemok berreskuratzea bultzatuz.

## 111. artikulua.- Kudeaketarako organoak

1. Natur Baliabideen Antolamendurako Planagaz eta arlo honetan aplikatu daitekean ganerako legeriaren arabera egoitzat joten dan foru sail eskudunaren pertsona bakarreko edo taldeko organo guztiek burutuko dabe babespeko naturguneen kudeaketea.

2. Babespeko naturguneen kudeaketari laguntzeko, bidezkoa danean, patronatuak eratuko dira, eremu jakin bateko eskuhartze eta interesak integratzeko organo gisa; patronatuon osakerea eta funtzinoak arau bidez zehaztuko dira, Legean ezarrita dagoanaren arabera.

## 112. artikulua.- Kudeaketarako organoen funtzinoak

Naturguneen kudeaketarako organoek ondoko funtzino honeek eukiko dabez:

a) Erabilera eta kudeaketarako plan artezkaria gertutzea. Plan horren behin betiko onestea Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari jagoko, horretarako tramitatzen dan espedientea egin ondoren eta legean aurrikusita dagoan prozedureagaz bat etorriz. Planak kasuan kasuko naturgunea kudeatzeko gidalerroak eta irizpideak jaso beharko dauz, Natur Baliabideen Antolamendurako Planak xedatzen dituan zehaztapen arauemoleen eta kasuko eremua naturgune adierazoteko kariakaz bat datozen eta beharrezkoak diran ganerako zehaztapen guztien arabera.

b) Kudeaketa-egitarauaren aurrekontua eta proposamena urtero gertutzea.

c) Barne zerbitzuen erabileratik datozan fondoak eta kanpotik jaso daitekezan baliabideak administratzea.

d) Naturgunean aplikatu daitekean arautegiak ezarrita daukazan naturearen babesari buruzko arau orokorrak bete daitezan jagotea.

e) Emitir informe previo a la concesión de autorizaciones necesarias para la ejecución de cualquier plan, obra o aprovechamiento en el espacio natural protegido.

f) Otras funciones que les encomienden las Leyes

e) Babespeko naturguneetan edozein plan, lan edo ustiaketa burutzeko behar diran baimenak emon aurretik txostena gertutzea.

f) Legeen arabera euroi jagokezan beste funtzino batzuk.

### Artículo 113.- Administración conjunta

La administración de distintos espacios naturales podrá unificarse cuando estos se hallen en una misma unidad geográfica o cuando se den otras circunstancias que, a juicio de la Diputación Foral, la efectiva gestión de los espacios así lo justifiquen.

### 113. artikulua.- Baterako administrazinoa

Zenbait naturguneren administrazinoa bateratu ahal izango da, naturguneok eremu geografiko berean badagoz edo, Foru Aldundiaren eretxiz, euron kudeaketa eraginkorra izateak hori bidezkotzen dauan osterantzeko inguruabarrak suertatzen badira.

### Artículo 114.- Conservación de las especies

El Departamento de Agricultura, en coordinación con otras Administraciones Públicas e Instituciones, adoptará las medidas necesarias tendentes a la conservación de la flora y de la fauna que vivan en estado silvestre en el Territorio Histórico, con especial atención a las especies autóctonas.

### 114. artikulua.- Espezieen artapena

Nekazaritza Sailak, beste administrazino edo erakunde publikoakaz alkarlanean jardunez, Jatorrizko Bizkai Lurraldeko berezko landareak eta animaliak, batez be bertoko espezieak, artatzeko beharrezkotzat joten diran erabagiak hartuko ditu.

### Artículo 115.- Registro de Espacios Naturales

1. El Registro de Espacios Naturales Protegidos es un registro público de carácter administrativo en el que se consignarán los datos de todos los espacios así declarados del Territorio Histórico de Bizkaia, se hallen o no totalmente ubicados en dicho Territorio.

2. La Oficina del Registro radicará en las Dependencias del Departamento de Agricultura, pudiendo las Entidades o particulares solicitar cuantas certificaciones estimen pertinentes.

### 115. artikulua.- Naturguneen erregistroa

1. Babespeko naturguneen erregistroa administrazino-erregistroa da, eta bertan Jatorrizko Bizkai Lurraldean naturgune lez adierazota dagozan gune guztiak erasota dagoz, lurraldean oso-osorik kokaturik egon zein ez egon.

2. Erregistroaren bulegoa Nekazaritza Sailaren egoitzetan egongo da, eta entitate eta norbanakoek nahi daben beste ziurtagiri eskatu ahal izango dabe.

## TÍTULO VI
## INFRACCIONES Y SANCIONES

### Artículo 116.- Responsabilidad

1. Incurrirán en responsabilidad administrativa quienes por acción u omisión infrinjan de algún modo lo dispuesto en la presente Norma Foral.

2. Cuando se apreciaren hechos que pudieran ser constitutivos de delito o falta la Diputación Foral los pondrá en conocimiento del órgano jurisdiccional competente, suspendiéndose entre tanto el procedimiento sancionador incoado. De no estimarse la existencia de delito o falta, la Diputación Foral podrá continuar el expediente sancionador con base, en su caso, en los hechos que la jurisdicción competente haya declarado probados.

## VI. TITULUA
## URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

### 116. artikulua.- Erantzukizuna

1. Administrazinoaganako erantzukizuna eukiko dabe ekintzaz edo alde batera itziz honako foru arau honek dinoana zelanbait urratzen dabenek.

2. Delitu edo hutsegitea izan daitekezan jazoerak sumatzen diranean, Foru Aldundiak euren barri emongo deutso jurisdikzino-organo eskudunari, eta hasitako zehapen-prozedurea eten egingo da artetan. Harek delitu edo hutsegiterik egon danik uste ez badau, Foru Aldundiak zehapen-espedienteari ekin ahal izango deutso, oinarri legez, halan danean, jurisdikzino eskudunak frogatutzat joten dituan jazoerak hartuta.

3. Cuando hubieran participado distintas personas en la realización de la infracción, la responsabilidad será solidaria, sin perjuicio del derecho a repetir frente a los demás participantes por parte de aquel o aquellos que hubieran hecho frente a la sanción.

3. Urratzean pertsona batek baino gehiagok parte hartzen badabe, erantzukizuna solidarioa izango da, zehapenari aurre egiten deutsonak edo deutsoenek beste partaideen aldean errepetitzeko dauken eskubidearen kalte barik.

## Artículo 117.- Reparación de daños y perjuicios

## 117. artikulua.- Gatx-kalteen ordainketak

1. Sin perjuicio de las sanciones administrativas que en cada caso procedan, el infractor a infractores vendrán obligados a reparar o abonar el daño causado. El objetivo de la reparación será, preferentemente, restituir el medio natural al estado en el que se hallaba antes de cometerse la infracción.

1. Kasu bakotxean bidezko diran administrazino-zehapenen kalte barik, urratzaile edo urratzaileek egiten daben kaltea konpondu edo ordaindu egin beharko dabe. Konponketearen helburua, ahal dala, ingurugiroa urratzea egin orduko egoan legez iztea izango da.

2. La Diputación Foral podrá, en el caso de que el sujeto obligado no lo hiciera voluntariamente, efectuar la reparación a costa de éste.

2. Foru Aldundiak konponketea egin ahal izango dau behartuta dagoanaren pentsura, beronek bere borondatez egiten ez badau.

3. Con el fin de asegurar la eficacia de la Resolución que pudiera recaer, evitar el mantenimiento de los efectos de la infracción y atender a la exigencia de los intereses generales, el Organo competente para la iniciación del procedimiento sancionador o el Organo Instructor podrá adoptar las siguientes medidas cautelares:

a) suspensión de la licencia o autorización que se hubiere concedido.

b) prestación de fianza suficiente para asegurar la reparación del daño causado.

c) suspensión temporal de actividades.

d) decomiso de cuantos bienes y productos sean fraudulentamente obtenidos en los montes y áreas forestales y los medios utilizados en su realización.

Estas medidas deberán ajustarse a la intensidad, proporcionalidad y necesidades de los objetivos que se pretende garantizar en cada supuesto concreto.

3. Emon daitekean ebazpenak eraginkortasuna euki daian, urratzearen ondorioek iraun ez daien eta interes orokorrei jaramon egiteko, zehapen-prozedurea hasteko eskumena daukan organoak edo organo instruktoreak ondoko kautelazko neurriak hartu ahal izango dabez:

a) Emandako lizentzia edo baimena etetea.

b) Egiten dan kaltea konpontzea ziurtatzeko lagineko fidantzea emotea.

c) Jarduerak aldi baterako etetea.

d) Baso eta baso-guneetan behar ez dan moduan lortzen diran ondasun eta gaiak eta horretarako erabilten diran baliabideak dekomisatzea.

Neurri horreek balizko kasu bakotxean ziurtatu nahi diran helburuen intentsitate, proportzionalitate eta premiñei lotu beharko jakez.

## Artículo 118.- Infracciones administrativas[1]

Tendrán consideración de infracciones administrativas las siguientes:

a) La realización de cualquier clase de aprovechamiento en los montes o áreas forestales sin ajustarse a las prescripciones técnicas señaladas por el Departamento de Agricultura, o sin autorización administrativa.

## 118. artikulua.- Arau-hauste administratiboak[2]

Arau-hauste administratiboak izango dira hurrengo hauek:

a) Mendi edo basoetan edozein motatako aprobetxamenduak egitea, Nekazaritza Sailak zehazturiko ezarpen teknikoetara egokitu gabe edo baimen administratiborik eduki gabe.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*

[2] *2007/3. Foru- Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

b) La tala, corta, arranque, daño o apropiación de árboles o leñas sin autorización administrativa, cuando esta sea preceptiva.

b) Zuhaitzak edo egurra botatzea, moztea, errotik ateratzea, hondatzea edo eskuratzea, beharrezkoa den baimen administratiboa izan gabe, baimena derrigorrezkoa den kasuan.

c) El aprovechamiento de frutos, plantas u otros productos forestales sin autorización, cuando ésta fuera preceptiva.

c) Frutak, landareak edo bestelako baso produktuak aprobetxatzea baimenik gabe, baimena derrigorrezkoa den kasuan.

d) La utilización u ocupación de los montes de dominio público llevada a cabo sin la correspondiente concesión o autorización para aquellos usos que la requieran o con incumplimiento de sus condiciones.

d) Jabari publikoko mendiak erabili edo okupatzea, beharrezkoa den lagapena edo baimena izan gabe, baimena derrigorrezkoa den kasuan, edo bertan ezarritako baldintzak bete gabe.

e) El cambio de uso forestal de los montes o áreas forestales sin autorización o sin ajustarse a las condiciones de la misma.

e) Mendi edo basoen baso-erabilera aldatzea baimenik gabe, edo baimenean ezarritako baldintzetara egokitu gabe.

f) La ejecución de las repoblaciones sin autorización o sin sujetarse a las condiciones técnicas que, en su caso, hubiera establecido el Departamento de Agricultura.

f) Oihantzeak baimenik gabe edota Nekazaritza Sailak baimenean ezarritako baldintza teknikoetara egokitu gabe egitea.

g) El pastoreo en los montes o áreas forestales en las épocas, lugares o circunstancias en que esté prohibido o cuando se lleve a cabo sin ajustarse a las condiciones y requisitos establecidos por el Departamento de Agricultura.

g) Abeltzaintzako jarduerak mendi edo basoetan garatzea debekatutako garai, toki edo moduan, edo jarduera horiek garatzea Nekazaritza Sailak ezarritako baldintza eta irizpideetara egokitu gabe.

h) La realización de vías de saca, pistas, caminos o cualquier otra obra cuando no esté prevista en los correspondientes proyectos de ordenación o planes regulados en esta Norma Foral, o sin estar expresamente autorizada por el Departamento de Agricultura.

h) Ateratzeko bideak, pistak, kamioak edo bestelako obrak egitea, zonaldeei dagozkien antolamendu proiektuetan edo foru arau honek arautuko planetan aurreikusten ez bada, edo Nekazaritza Sailak espresuki baimendutako ekintza ez bada.

i) Cualquier incumplimiento grave del contenido de los Proyectos de Ordenación de Recursos Forestales, proyectos de ordenación de montes, planes regulados en esta Norma Foral, así como sus correspondientes autorizaciones, sin causa técnica justificada y notificada al Departamento de Agricultura.

i) Baso Baliabideen Antolamendurako Proiektuen, mendien antolamendurako proiektuen, foru arau honek arautako planen nahiz horiei dagozkien baimenen edukia larriki urratzea, horretarako arrazoi tekniko justifikatua eta Nekazaritza Sailari jakinarazitakoa izan gabe.

j) El incumplimiento de la obligación de repoblar los montes deforestados o de las disposiciones encaminadas a la restauración y reparación de los daños ocasionados a los montes, así como de las medidas cautelares dictadas al efecto.

j) Deforestatutako mendiak oihantzeko betebeharrarekin ez betetzea, edo mendiei eragindako kalteak konpondu eta ingurua lehengoratzeko ezarritako xedapenak nahiz xede horrekin jarritako kautelazko neurriak ez betetzea.

k) El tránsito o la permanencia en caminos o zonas forestales donde exista prohibición expresa en tal sentido.

k) Espresuki debekaturiko bide edo baso zonaldeetan ibiltzea edo bertan geratzea.

l) La circulación o aparcamiento de todo tipo de vehículos, incluidas bicicletas, en los montes con incumplimiento de lo dispuesto en la Sección 3ª del Capítulo III, Titulo III de esta Norma Foral.

l) Mendietan edozein motatako ibilgailuekin ibiltzea edo horiek aparkatzea, horrekin foru arau honetako III. Tituluko III. Kapituluko 3. Atalean ezarritakoa urratzen bada.

m) El vertido no autorizado de todo tipo de residuos en terrenos forestales.

m) Edozein motatako hondakinak baimendu gabeko moduan isurtzea baso lurretan.

n) La alteración de las señales y mojones que delimitan los montes públicos deslindados.

ñ) La inobservancia de las distancias forestales mínimas en los supuestos contemplados en los artículo104 y 105 de esta Norma Foral.

o) La obstrucción por acción u omisión de las actuaciones de investigación, inspección y control de la Diputación Foral y de sus agentes, en relación las disposiciones de esta Norma Foral y de sus normas de desarrollo.

p) La realización de quemas en el monte, enclaves o terrenos próximos sin autorización administrativa, o sin cumplir las condiciones establecidas en ella o en épocas, lugares o actividades en que esté prohibido hacerlo.

q) El uso de plaguicidas o pesticidas sin autorización cuando esta fuera preceptiva.

r) Cualquier otro incumplimiento de los requisitos, obligaciones o prohibiciones establecidas en la presente Norma Foral.

## Artículo 119.- Calificación de las infracciones

1. Las infracciones podrán ser calificadas como leves, graves o muy graves.

2. Son infracciones leves: la simple inobservancia de las disposiciones de la presente Norma Foral cuando no se cause daño o perjuicio forestal alguno, o éste pueda ser reparado en un plazo inferior a seis meses.

3. Son infracciones graves: la reincidencia en la comisión de infracciones leves y las que conlleven alteración de los montes o áreas forestales cuya posible reparación pueda efectuarse en plazo inferior a diez años.

4. Son infracciones muy graves: la reincidencia en la comisión de faltas graves y las que supongan una modificación sustancial de los montes o áreas forestales cuya reparación o restitución sea imposible o en plazo superior a diez años.

5. Existe reincidencia a los efectos de lo dispuesto en el presente artículo cuando en el momento de cometerse la infracción no hayan transcurrido dos años desde la imposición de sanción por resolución firme con motivo de infracción prevista en el artículo anterior.

## Artículo 120.- Sanciones

1. Las infracciones serán sancionadas con las siguientes multas:

a) Infracciones leves: multa de diez mil a doscientas mil pesetas.

n) Mugatutako mendi publikoak zehazten dituzten seinale eta mugarriak aldatzea.

ñ) Foru arau honetako 104 eta 105 artikuluetan ezarritako suposamenduetako gutxieneko baso distantziak ez errespetatzea.

o) Foru Aldundiaren edo hark bidalitako agenteen ikerketa, ikuskapen eta kontrol jarduerak eragoztea zerbait egiteagatik edo egin beharrekoa ez egiteagatik. Horretarako, foru arau honetako xedapenak eta garapeneko arauak izango dira kontuan.

p) Mendian, enklabeetan edo gertuko lursailetan erreketak egitea administrazio baimenik gabe, bertan ezarritako baldintzak errespetatu gabe edo debekaturiko garai, toki edo jardueretan.

q) Plagizida edo pestizidak baimenik gabe erabiltzea, baimena izatea beharrezkoa den kasuan.

r) Foru arau honetan ezarritako irizpide, betebehar edo debekuak urratzen dituzten bestelako ekintzak burutzea.

## 119. artikulua.- Urratzeen kalifikazinoa

1. Urratzeak arinak, larriak edo oso larriak izan daitekez.

2. Ondokoak dira urratze arinak: honako foru arau honetako xedapenak ez gordetea bera, basoari kalterik egiten ez bajako, edo egiten dan kaltea sei hilabete baino lehenago konpondu ahal bada.

3. Ondokoak dira urratze larriak: urratze arinak behin eta barriro egitea, eta mendi edo basoetan konpontzeko hamar urte baino gitxiago behar dauan aldarazpena eragiten dabenak.

4. Ondokoak dira urratze oso larriak: urratze larriak behin eta barriro egitea, eta mendi edo basoetan konpondu edo lehengoratzeko hamar urte baino gehiago behar dauan nahikoa aldarazpen handia eragiten dabenak.

5. Honako artikuluak dinoanak ondorioak euki daizan, urratzea egitean berrerortzea egongo da, aurreko artikuluan aurrikusi dan urratze bat dala eta ebazpen irmoz zehapena ezarten danetik urte bi igaro ez badira.

## 120. artikulua.- Zehapenak

1. Urratzeei ondoko isunak ipiniko jakez zehapen gisa:

a) Urratze arinei: hamar mila eta berrehun mila pezeta bitarteko isuna.

b) Infracciones graves: multa de doscientas mil una pesetas a diez millones de pesetas.

c) Infracciones muy graves: multa de diez millones una pesetas a cincuenta millones de pesetas.

2. La cuantía de la multa que corresponda se graduará atendiendo a la intencionalidad del autor o autores de la infracción, a la entidad económica de los hechos objeto de sanción, la reiteración, y la dificultad de la restitución o reparación del perjuicio ocasionado. En ningún caso la multa podrá ser inferior al beneficio obtenido por la infracción cometida, pudiendo incrementarse aquella en cuantía equivalente al duplo del beneficio aunque ello suponga sobrepasar la escala a la que se hace referencia en el punto uno del presente artículo.

3. Podrán imponerse multas coercitivas reiteradas por lapsos de tiempo que sean suficientes para cumplir lo ordenado por los órganos sancionadores, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 99 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. La cuantía de cada una de dichas multas no podrá exceder del veinticinco por ciento de la sanción impuesta.

## Artículo 121.- Competencia sancionadora

Las autoridades u órganos competentes para imponer las sanciones establecidas serán las siguientes:

a) El Diputado Foral de Agricultura, para las infracciones leves y graves.

b) El Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, para las infracciones muy graves.

## Artículo 122.- Procedimiento

1. El procedimiento sancionador se ajustará a lo dispuesto en esta materia por las leyes administrativas vigentes en cada momento.

2. En cualquier caso, será pública la acción para exigir el cumplimiento de lo dispuesto en la presente Norma Foral o en las disposiciones, planes o proyectos que la desarrollen.

3. Las resoluciones que pongan fin a la vía administrativa serán inmediatamente ejecutivas y contra las mismas no podrá interponerse recurso administrativo ordinario. Ello no obstante, en los supuestos de interposición de recursos o procedimientos de revisión de oficio, se podrán acordar o mantener las disposiciones cautelares previas para garantizar su eficacia en los términos especificados en el artículo 117.3 de esta Norma Foral.

b) Urratze larriei: berrehun mila eta bat eta hamar milioi pezetako bitarteko isuna.

c) Urratze oso larriei: hamar milioi eta bat eta berrogeita hamar milio pezeta bitarteko isuna.

2. Ipini behar dan isuna zenbatekoa izango dan zehazteko urratzearen egile edo egileen asmozkotasuna, zehapena ezarri behar jaken egintzen garrantzi ekonomikoa, errepikea eta eragiten dan kaltea lehengoratu edo konpontzeko zailtasuna neurtuko da. Isuna ez da inoiz izango egin dan urratzeagaz eskuratu dan diru-kopurua baino txikiagoa, eta atara dan onura horren bikotxa izatera be heldu daiteke, nahiz eta hori betez gero honako artikulu honen lehen puntuan aitatzen dan eskalea gainditzea suposatu.

3. Administrazino Publikoen eta Baterako Administrazino Prozedurearen Erregimen Juridikoari buruzko zemendiaren 26ko 30/92 Legearen 99. artikuluak dinoanagaz bat etorrita, organo zehatzaileek agintzen dabena beteteko bestekoak diran epealditan hertsa-isunak ipini ahal izango dira behin eta barriz. Isun bakotxaren zenbatekoak ezin gainditu izango dau ezarten dan zehapenaren ehuneko hogeitabosta.

## 121. artikulua.- Zehapenak jarteko eskuduntza

Ondokoak dira ezarrita dagozan zehapenak jarteko eskumena eukiko daben agintari edo organoak:

a) Nekazaritzako foru diputatua, urratze arin eta larrietarako.

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua, urratze oso larrietarako.

## 122. artikulua.- Prozedurea

1. Zehapen-prozedurea arlo honetaz aldi bakotxean indarrean dagozan administrazino-legeek dinoanari lotuko jako.

2. Edozelan be, honako foru arau honek edo berau garatzen daben xedapen, plan edo egitasmoek dinoena bete dadila eskatzeko egiten dan egintza jende aurrekoa izango da.

3. Administrazino-bidea ixten daben ebazpenak berehala betearazoko dira eta euron aurka ez da egongo administrazino-errekurtso arruntik jarterik. Hori gorabehera, ofiziozko errekurtsoak edo gainikuspen-prozedurak jarten diranean, aurreko kautelazko xedapenak erabagi edo mantendu ahal izango dira, euron eraginkortasuna ziurtatzeko, honako foru arau honen 117.3. artikuluan zehazturik dagoan legez.

### Artículo 123.- Prescripción

1. Las infracciones administrativas reguladas en la presente Norma Foral prescribirán: en el plazo de tres años, las muy graves; en el de doce meses, las graves; y en el de tres meses, las leves.

2. Las sanciones, cualquiera que fuere su cuantía, prescribirán a los cinco años.

### 123. artikulua.- Preskripzinoa

1. Honako foru arau honek araupetu dituan administrazinoaganako urratzeak holan preskribituko dira: oso larriak hiru urteko epean; larriak hamabi hilabetekoan; arinak hiru hilabetekoan.

2. Zehapenak, zenbatekoa dana dala, bost urtean preskribatuko dira.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

### Primera

Se faculta a la Diputación Foral para determinar la extensión de la unidad mínima de cultivo, así como para actualizar la cuantía de las multas o sanciones reguladas en el Título VI de esta Norma Foral

### Segunda

1. La Diputación Foral, a propuesta del Diputado Foral de Agricultura, aprobará cuantas disposiciones reglamentarias fueran necesarias para el desarrollo y ejecución de esta Norma. En el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta Norma Foral, la Diputación Foral determinará mediante Decreto, las distancias a que se refiere el artículo 105 de la misma.

2. Asimismo, la Diputación Foral podrá conceder cuantas ayudas o subvenciones estimare oportuno en orden a contribuir al cumplimiento de las finalidades de la presente Norma Foral, conforme a lo establecido en la misma y en la normativa presupuestaria.

### Tercera

De conformidad con lo señalado en el artículo 64.1 de la presente Norma Foral, las especies cuya solicitud de aprovechamiento se entenderá concedida una vez transcurrido el plazo establecido sin haberse adoptado resolución al respecto, son las siguientes:

- Pinus radiata D. Don (Pino de Monterrey)
- Pinus pinaster Ait. (Pino marítimo)
- Pinus nigra Arn. (Pino laricio)
- Robinia pseudoacacia L. (Falsa acacia)
- Pseudotsuga menziesii Franco. (Abeto de Douglas)
- Quercus rubra Duroi. (Roble americano)
- Liriondendron tilipifera I. (Tulipero de Virginia)
- Eucaliptus spp. (Eucaliptos)
- Populus spp. (Chopos)

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa

Bizkaiko Foru Aldundiari ahalmena emon jako soloak egiteko gitxienezko azalera-unitatea zein dan erabagi eta foru arau honen VI. tituluak araupetu dituan isun edo zehapenen zenbatekoak eguneratzeko.

### Bigarrena

1. Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik, Foru Aldundiak arau hau garatu eta betearazoteko behar diran arauzko xedapen guztiak onetsiko ditu. Foru Arau hau indarrean sartu daitenetik sei hilabetera Foru Aldundiak Dekretu bidez zehaztuko ditu 105. artikuluan agertzen diran distantziak.

2. Era berean, honako foru arau honen helburuak beteteko, Foru Aldundiak egoki deritxen laguntza edo dirulaguntza guztiak emon ahal izango ditu, foru arau honetan eta aurrekontuei buruzko arautegian ezarrita dagoanagaz bat etorriz.

### Hirugarrena

Foru Arau honen 64.1 artikuluan ezarritakoetarako, hurrengook dira aprobetxamendu-eskabidea egin eta horretarako epean erabagirik hartu ezean baimena emondakotzat joten diran espezieak:

- Pinus radiata D. Don (Intsinis pinua)
- Pinus pinaster Ait. (Itsas-pinua)
- Pinus nigra Arn. (Larizio pinua)
- Robinia pseudoacacia L. (Sasiarkazia)
- Pseudotsuga menziesii Franco. (Douglas izeia)
- Quercus rubra Duroi. (Aretx amerikarra)
- Liriondendron tilipifera I. (Tuliparbola)
- Eucaliptus spp. (Eucaliptua)
- Populus spp. (Makala)

- Chamaceyparis spp. (Cipres de Lawson y otros)

- Picea spp. (Piceas)

- Larix spp. (Alerces)

### Cuarta

En la medida en que los montes o espacios naturales contasen con algún régimen de protección establecido como bienes integrantes del patrimonio Cultural Vasco o algún elemento con la consideración de bien cultural calificado o inventariado formase parte de los mismos se estará a lo establecido en la normativa vigente sobre protección del patrimonio cultural. El Departamento de Agricultura velará por la perfecta coordinación de las actuaciones a que se refiere esta Norma Foral con respecto a la citada Normativa.

### Quinta

Lo dispuesto en el Capítulo IV del Título IV aplicable a los montes y áreas forestales definidas en la presente Norma Foral se referirá, cuando se apruebe el correspondiente Plan Territorial Sectorial Forestal, a las áreas definidas como forestales en el citado Plan.

### Sexta

En el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de la presente Norma Foral la Diputación Foral de Bizkaia publicará la relación de los Montes incluidos en el Catálogo de Montes de Utilidad Pública de Bizkaia, indicando nombre del monte, extensión, titular del mismo, término municipal en que se encuentra ubicado así como partido judicial al que pertenece a los efectos derivados del artículo 13 de la misma.

### Séptima[1]

Las personas o entidades que hayan sido sancionadas de manera firme por la comisión de las infracciones de carácter grave o muy grave así como las infracciones contempladas en los apartados a), c), d) y e) del artículo 118 de esta Norma Foral en todo caso, no podrán obtener subvenciones en materia de agricultura durante un periodo de 3 años.

- Chamaceyparis spp. (Lawson altzifrea etab.)

- Picea spp. (Izei gorria eta Sitka izeia)

- Larix spp. (Alertzeak)

### Laugarrena

Mendi edo naturguneek euskal kultur ondarearen ondasun gisa babes erregimenen bat ezarrita badauke edo eurotako elementuren bat kultur ondasun sailkatu edo katalogatua bada, kultur ondarearen babesari buruz indarrean dagoan arautegia beteko da. Nekazaritza Sailak foru arau honek arautegi horretaz aitatu dituan jarduketen arteko koordinazinoa akats bakoa izan dadin jagongo dau.

### Bostgarrena

Foru Arau honetan ohartemondako mendi eta baso-eremuei ezarri dakikien IV. Tituluko IV. Kapituluan zehaztutakoa, Basogintzarako Arlokako Lurralde Plana onartzen danean, Plan horretan basogintzarakotzat jotako eremuetara mugatuko da.

### Seigarrena

Foru Arau hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epe barruan Bizkaiko Herri Onurako Mendien Katalogoan sartutako Mendien zerrendea argitaratutko dau Bizkaiko Foru Aldundiak. Hurrengook zehaztuko dira bertan: mendiaren izena, luze-zabalera, mendiaren jabea nor dan, zein udalerritan dagoan eta Foru Arauaren 13. artikuluaren araberako ondorioetarako zein epailaritza-barrutiri jagokon.

### Zazpigarrena[2]

Foru arau honetako 118. artikuluaren a), c), d) eta e) ataletan zehazturiko arau-hausteak edo bestelako arau-hauste larriak edo oso larriak egiteagatik irmoki zigorturiko pertsonek edo erakundeek ezingo dute, inolaz ere, dirulaguntzarik jaso nekazaritzaren esparruan 3 urteko epean.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, referenciada en el § E4*

[2] *2007/3. Foru- Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

## Octava. Repoblaciones con especies del género Eucalyptus[1]

a) Con carácter transitorio, hasta el 31 de diciembre de 2025 solo estarán permitidas las repoblaciones con especies del género Eucalyptus previstas en instrumentos de ordenación o gestión forestal que hayan sido aprobados por la Administración forestal antes de la entrada en vigor de esta disposición, o en dichos instrumentos cuando su solicitud de aprobación se encontrase en tramitación con anterioridad a la entrada en vigor de esta disposición, y que fuesen, finalmente, objeto de aprobación por la Administración forestal.

b) Con carácter transitorio, hasta el 31 de diciembre de 2025 las reforestaciones con especies del género Eucalyptus únicamente estarán permitidas cuando la ocupación anterior del terreno objeto de la reforestación haya constituido una masa pura o mixta dominante de este género, y siempre y cuando las plantaciones anteriores se hayan realizado respetando lo dispuesto en la legislación sectorial vigente. No se permitirá que se supere la superficie anterior de Eucalyptus.

c) A los efectos de lo indicado en los números anteriores, se entenderá por dominante aquella ocupación que, dentro de la misma parcela catastral, suponga un porcentaje de pies mayores del género Eucalyptus superior al 50 % del total de la masa. A estos efectos, se considerarán pies mayores aquellos que presenten un diámetro normal igual o superior a 7,5 centímetros.

d) A los efectos previstos en esta disposición, se entenderá por repoblación forestal la introducción de especies forestales arbóreas o arbustivas en un terreno mediante siembra o plantación, y podrá ser forestación o reforestación.

e) La reforestación consistirá en la reintroducción de especies forestales, mediante siembra o plantación, en terrenos que estuvieron poblados forestalmente hasta épocas recientes, pero que quedaron rasos a causa de talas, incendios, vendavales, plagas, enfermedades u otros motivos.

f) En caso de repoblaciones con el género Eucalyptus, no les será de aplicación lo indicado en el apartado 2 del artículo 87 de la Norma Foral 3/1994, relativa a la repoblación de montes no catalogados y particulares no protectores.

## Zortzigarrena. Basoak Eucalyptus generoko espeziez berritzea[2]

a) Aldi baterako neurri legez, 2025eko abenduaren 31ra arte, bakarrik baimenduko da Eucalyptus generoko basoberritzeak egitea baldin eta basoen arloko administrazioak xedapen hau indarrean sartu aurretik onarturiko basoantolamendurako edo -kudeaketarako tresnetan aurreikusirik badaude, edo, tresnotan jasota egonik, haien onarpen-eskaera xedapen hau indarrean jarri aurretik izapidetzen ari bada eta azkenean administrazioak onartzen baditu.

b) Aldi baterako neurri legez, 2025eko abenduaren 31ra arte, bakarrik baimenduko da Eucalyptus generoko basoberritzeak egitea berritu nahi den sailean lehen ere zegoen masa genero horretakoa bazen huts-hutsean edo mistoa izanik hura bazen nagusi, eta, betiere, aurreko landaketak egitean indarrean zegoen araudi sektoriala errespetatu bada. Ez da baimenduko Eucalyptusen aurreko azalera gainditzea.

c) Aurreko zenbakietan adierazitakoaren ondorioetarako, honako hau hartuko da okupazio nagusitzat: katastroko partzela beraren barruan, Eucalyptus generoko oin handien ehunekoa masa osoaren % 50 baino handiagoa denean. Horretarako, oin handitzat joko dira beren diametro normala 7,5 zentimetro edo gehiagokoa dutenak.

d) Xedapen honen ondorioetarako, basoberritzea zera izango da: sail batean zuhaitz- nahiz zuhaixka-espezieak ereitea nahiz landatzea, eta hori basotzea nahiz basoberritzea izan ahalko da.

e) Basoberritzea izango da baso-espezieak berriro sartzea, erein nahiz landatuz, oraintsu arte basoz populaturik izan direneko lurretan, zeinak soildurik geratu diren mozketa, suteak, haizeteak, plagak, gaixotasunak nahiz beste arrazoi batzuk direla medio.

f) Eucalyptus generoarekiko basoberritzeei ez zaie aplikatuko 3/1994 Foru Arauaren 87. artikuluaren 2. zenbakian adierazten dena, katalogatu gabeko eta babesle ez diren norbanakoen mendietako birlandaketei dagokienez.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 2/2022, referenciada en el § E4*

[2] *2022/2. Foru- Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da*

g) El plazo de ejecución para las nuevas plantaciones que se realicen con el género Eucalyptus y que hayan sido autorizados conforme al apartado a) de la presente Disposición Adicional, finalizará a los 30 días naturales, contados desde la entrada en vigor de la presente disposición.

g) Eucalyptus generoarekin egiten diren eta xedapen gehigarri honen a) letraren arabera baimendu diren landaketa berriak egiteko epea 30 egun izango da, xedapen hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

h) La presente disposición adicional será tenida en cuenta en la redacción de los futuros decretos anuales de subvenciones forestales hasta el fin de la moratoria de cara a promover y facilitar forestaciones y reforestaciones con distintas especies de acuerdo con una gestion forestal sostenible.

h) Xedapen gehigarri hau kontuan hartuko da baso-dirulaguntzei buruzko etorkizuneko urteko dekretuak idazterakoan, luzamendua amaitu arte, baso-kudeaketa jasangarri baten arabera hainbat espezierekin baso landaketak eta basoberritzeak sustatzeko eta errazteko.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

### Primera

Las solicitudes y expedientes de cualquier clase en tramitación a la entrada en vigor de esta Norma Foral, en las materias reguladas por la misma, continuarán rigiéndose por lo dispuesto en la legislación anterior.

### Segunda

Se autoriza a la Dirección General de Montes y Espacios Naturales para realizar las operaciones de integración necesarias del actual Catálogo de Montes de Utilidad Pública, adoptándolo a lo dispuesto en el Título II de esta Norma Foral.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### Lehenengoa

Foru arau hau indarrean jartean beronek araupetutako arloetan tramitazinoan dagozan eskabide eta espedienteetan aurreko legeriak zinoana izango da aginduzko.

### Bigarrena

Baso eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiari ahalmena emon jako herri onurako mendien oraingo katalogoa foru arau honen II. tituluak dinoanera moldatzeko egin behar diran integrazino-eragiketak egiteko.

## DISPOSICIONES FINALES

### Primera

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en esta Norma Foral.

### Segunda

La presente Norma Foral entrará en vigor el vigésimo día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

## AZKEN XEDAPENAK

### Lehenengoa

Honako foru arau honek dinoanaren aurka doazen lerrun bereko edo beheragoko lerruneko xedapen guztiak indargabetu dira.

### Bigarrena

Honako foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik hogei egunetara jarriko da indarrean.